




675 urteko historia duen herria

1346-2021



**GABONETAN ERE,
HONDAKINAK
BIRZIKLATU
ETA IZAN GARBI!**





Elgoibarko Izarraren tonbola, bertan behera

Covid-19ak eragindako egoera epidemiologikoa dela eta, Elgoibarko Izarrak abenduaren 24rako antolatzen duen TONBOLA bertan behera lagatzea erabaki du. TONBOLA berriro egingo du, osasun egoerak aukera ematen duenean.

Elgoibarko Izarrak, urtero bezala, jendearen prestutasuna eta eskuzabaltasuna eskertu nahi ditu.



ELGOIBARKO IZARRA
Eskuzabaltasunaren Txapelduna



BELAUSTEGI
— BASERRIA —

*Etxekoekin batera
gozatu ospakizunak,
Lekua har dezatela
bakeak eta maitasunak,
Urte berri on, lagunak!*



SAN MIGEL GAINA, 44 . 20870 ELGOIBAR



943 74 31 02 WWW.BELAUSTEGI.COM



ESTREINA EZAZU IRRIBARREA!

Titaniozko inplanteen eskaintza berria

Gabon zorientsuak

Aldaz hortz klinikako 'sagarloompa' guztien partez!

943 366 377

Lasarte - Elgoibar - Tolosa



Haurren aurrean, helduok heldu ekimena amaitu da, baina abenduaren 3an **GEURE SEME-ALABEN AURREAN** adierazpena aurkeztu genuen guraso batzuek geure seme-alaben aurrean.

GEURE SEME-ALABEN AURREAN adierazpena

1. Haurren aurrean, helduok heldu egitasmoa gaur amaituko bada ere, aurrerantzean ere bat egingo dugu arriketa horren helburuekin.
2. Gure seme-alabak euskaraz hazi eta hezi nahi ditugu, eta badakigu horretarako guk zeregin handia daukagula, dena gure esku ez dagoela badakigun arren.
3. Gure seme-alabei euskaraz egiteko eskatzen ibili beharrean, haiek euskara entzuteko eta euskaraz jarduteko ahalik eta aukera gehien eskaintzen saiatuko gara.
4. Euskaraz dakigun gurasoak euskaraz egingo diegu gure seme-alabei, inguruan daudeneak euskaraz jakin edo ez.
5. Helduen arteko hizkuntza-portaeraren gaineko gogoeta egingo dugu, eta saiatuko gara honako konpromiso hauek hartzen:
 - Euskaraz dakigunon artean euskaraz egingo dugu.
 - Ulartzen duonari euskaraz egiten saiatuko gara, berak ordaraz erantzuten badigu ere.
6. Badakigu hizkuntza-ohiturak aldatzea zaila dela, baina saiatuko gara hartu ditugun konpromisoak betetzen, politik-poliki bada ere.
7. Algunas de las personas que firmamos esta declaración no sabemos euskera, pero, aun así, queremos que nuestras hijas e hijos sean euskaldunes.
8. Para ello, siempre que podamos, ofreceremos a nuestras hijas e hijos la posibilidad de que escuchen y hablen en euskera.
9. Junto con el euskera, les transmitiremos nuestra lengua y cultura de origen.

30 بعض من الأشخاص الذين وقعوا على هذه الوثيقة لا يعرفون لغة الباسك، وعلى الرغم من ذلك نريد من بناتنا وأبنائنا أن يتعلموا لغة الباسكية.

31 لتحقيق ذلك نقوم بكل ما نستطيع لإنعاش بناتنا وأبنائنا فرصة الإستماع والتحدث باللغة الباسكية.

32 إلى جانب لغة الباسك، سنقل إليهم لغتنا وثقافتنا الأصلية.

Adierazpen hau sinatzen dugun 0 eta 12 urte arteko umeen gurasoak bat egiten dugu bertan esaten denarekin eta geure seme-alaben aurrean hartutako konpromisoak betetzen saiatuko gara.

Elgoibarren, 2021eko abenduaren 3an.



0 eta 12 urte arteko seme-alabak dauzkazuen gurasoak gonbidatuta zaudete adierazpena irakurri eta, bertan esaten denarekin bat bazatozte, sinatzera.

Adierazpena irakurri eta sinatzeko: www.elgoibarkoizarra.eus



ANE ASTIAZARAN

Itzultzailea

Berehalakotasuna

Berehalakotasuna nagusi den garai honetan, den-dena nahi dugu, eta segituan, gainera. Erraz kriminalizatzen ditugu berandu iristen diren (edo iristen ez diren whatsapp), normalizatu egin ditugu igandetan iristen diren Amazonen paketeak, gehiegi pentsatu gabe eskatzen edota erosten ditugu unean uneko kapritxoak (nobedade izateari uzten diotenean gure interesa galduko dutela jakinda ere).

Albisteak ere egunetik egunera iraungitzen dira, interesa galtzen dute, hurrengo egunean berri zirrarragarriago bat egongo delako (edo delakoan). Modu horretan geratzen dira atzean

garrantzia duten eta bere momentuan eskandalizatzen gaituzten zenbait notizia. Gaurkotasuna bere zentzurik zorrotzenez hartzen dute albisteek, eta gu, gure burbuila indibidualistan edo Disneyko edozein printzesaren lozorro gozoan murgildurik, albisteek sortzen diguten uneko asaldurarekin besterik ez gara geratzen.

Espainiako Auzitegi Gorenak Kataluniako eskolak euren ikastorduen %25 gutxienez gaztelaniaz egitera derrigortu ditu. Katalanaren pareko hizkuntza gutxitu batentzat orain arte ezinbestekoa izan den eta oraindik ere

“Ate bat ireki da hizkuntza gutxituak are gehiago zapaldu ahal izateko, legeak babestuta, gainera”

ezinbestekoa den murgiltze eredu bertan behera geratu da. Desobedientziak erantzunez, Kataluniako hezkuntza kontseilariak ikastetxeei programak ez aldatzeko eskatu zien, eta momentuz badirudi lehengo norabide berean doazela, baina ate bat ireki da hizkuntza gutxituak are gehiago zapaldu ahal izateko, legeak babestuta, gainera.

Muturreko erabakiei erantzun erradikala eman behar zaie, baina ohituta gaude axolagabetasunez erantzuten. CUP izan da eraso horren aurrean hemendik aurrera prentsurrekoetan katalan hutsean arituko direla esan duen alderdi bakarra. Baina beno, gurea oraindik ez denez iritsi, mehatxua ahaztuta ospatu genuen euskararen eguna, eta pozik ibili gara Barrenkale, Artekale eta Goienkalen barrena, ez? Ala horiek ere ahantzarazi al dizkigute euripeko 21 egunek eta txertoaren auziak?



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Geritu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ OHARRA

Eskuartean duzuna da 2021eko azken alea. Eguberrietako oporren ostean, urtarrilaren 3an itzuliko gara lanera, eta hilaren 5ean jasoko duzue hurrengo zenbakia. Zorionak eta urte berri on!

BARREN

▶ INTERES GORENEKO PROIEKTUETAN, UDALEI AUTONOMIA KENDU NAHI

EAJ eta PSE-EE alderdiek beraien lege proiektu bati egindako zuzenketa baten bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio sistema apurtu nahi dute. Hirigintza Plan Orokorra da herriek beraien antolaketarako daukaten tresna, eta herri bakoitzak bere erabakiak hartzeko autonomia du. EAJk eta PSE-EEk Legebiltzarrean zuzenketa hau aurrera ateraz gero, Udalek, Elgoibar barne, beren burua antolatzeko duten ahalmen guztia galduko dute. Eusko Jaurlaritzak soilik erabaki ahal izango du berria den "Interes Publiko Goreneko Proiektuen" figuraren bitartez zer proiektu gauzatuko diren herrietan, nahiz eta herri hori aurka egon. Golf zelai batetik erraustegi batera, zabortegi batetik igarota. Esate baterako, gure mendi gainak haize errotez bete nahi izanez gero, Udalak ez luke zer esanik izango, Jaurlaritzak Interes Publiko Goreneko Proiektutzat joko balu. Herriak ez du proiektu hori atzera botatzeko inongo aukerarik izango.

Euskal Herrian, EH Bildu herrietan lehen indarra da, eta desoreka egoera horrek eramaten ditu EAJ eta PSE-EE beraien proiektua inposatzera, herriaren borondatearen gainetik. Badugu adibiderik hurbil: Azpeitian edo Bergaran, herri hauetako hirigintza planek horrelako proiektuak onartzeko aukerarik ematen ez dutenez, IPGP figura sortzera eramaten ditu, herriari berak nahi ez dituen proiektuak inposatzeko.

Gure herriko autonomia defendatzeko beharrak Udalean mozio bat aurkeztera eraman gaitu, Udal alderdi guztiek Elgoibarko subirotasunaren apurketari aurka egin diezaioten, egoera honek ahulezi egoera izugarrian lagatzen gaituelako.

Ustezko trantsizio ekologikoaren izenean Udal Gobernuarentzat badirudi guztia onargarria izan daitekeela.

Elgoibarren gure mozioa (EH Bildu Podemos) ez dute onartu, Udal Gobernuarentzat tokiko autonomiaren defentsa ez delako lehentasuna, eta ustezko trantsizio ekologikoaren izenean egiten den guztia ontzat emateko prest daude.

EH Bildu Elgoibar

▶ ELKARBIZITZARAKO. BAKERAKO. ETXERAKO BIDEAN

Aurten posible izango da urte luzeetan Gabon bukaeraren bueltan Bilbon egin ohi den manifestazioa egitea. Berritri ere, elkar ikustearekin batera, une aproposa da azken hilabete luzeetako bilana egiteko. Urte honetan aurrera urratsak ikusi ditugu: preso hurbilketak senideen zama arintzea ekarri du, eta hori poztekoa da. Baina errealitateak oso gordina izaten jarraitzen du: 104 preso daude oraindik Euskal Herritik kanpoko espetxeetan. Euskal preso gehienak trabatuta dituzte bigarren graduak, eta hamar preso baino ez daude hirugarren graduak. Espetxeetako lege arrunta aplikatuz gero, 70ek egon beharko lukete hirugarren graduak eta 52k kalean, baldintzapeko askatasunean. Preso gehienek espetxe-baimenak izateko aukera izan beharko lukete, baina ukatu egiten zaizkie. Salbuespenezko legedia indarrean da oraindik, beraz, krudeltasun guztiarekin (espetxean dauden 19 gaixo larri, edota gure herritarra den Sebas Etxaniz, 78 urte eta eraztun telematikoko batez erabat kontrolatuta egotea dira horren adibide). Aipatu nahi dugu,

munduan zehar barreiatu badirela 34 iheslari eta zortzi deportatu, Euskal Herrira etortzeko prest, beren egoera legala konpontzeko prest, baina Entzutegi Nazionalaren trabekin topo egiten dutenak, tartean Josu Lariz elgoibartarra.

Badira motiboak kalera irteteko, eta Bilboko kaleak betetzeko. Bizikidetzaren eta bakea ezinezkoak direlako euskal preso eta iheslarietara aplikatzen zaien salbuespen legedia desagertzen ez bada. Beraz, animatzen zaituztegu Bilboko manifestazioan parte hartzera. Autobusa jarriko dugu Elgoibartik. Interesatuak Jai Alai, Iturri eta Lanbroa tabernetan eman beharko dute izena.

Bide batez, hilaren 24an, ostiralean, 19:00etan, Kalegoen plazan, herriko musikariek egingo duten kantaldira gonbidatzen zaituztegu; eta baita ere, hilaren 31n, ostirala, 13:00etan Kalegoen plazan hasi eta Maalako parkean bukatuko den Giza katean parte hartzera.

Elgoibarko SARE

▶ ESKERRIK ASKO

Ostiralean urak hartu zuen Mendara eta errepideak itxita izan genituen. Gure dendan, Coviranen, baina, ez genuen ogirik falta izan, eta lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiet gure hornitzaile diren Ibarrenea eta Urazandi Elgoibarko okindegiei. Bi zakukada ogi hartuta trenetara etorri zaitzaigun Edu Ibarrenea goizean goiz, eta Berazetatik barrera Antonio, Urazandi okindegikoa. Gure bezeroen eta geure izenean, mila esker. Estimaten da.


Saioa Andonegi



Maria Oñederra Irureta

2021eko abenduaren 4an hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

Hamaika kontuk ta kantuk
urtetan jantzi zaituzte,
trikitiak zuenean
izan du nahiko entzute.
Seme, errain ta bilobak
gogotsu jarraitu dute.
Baina zuk, etxeko damak,
beste hainbeste bertute.
Berdin udan eguzkitan
edo neguan elurte,
zure indar ta laguntzak
gugan isla izan dute.
Zure adina guk ere
gogoz hartuko genuke.
87 muxu
zure irri horren truke.



Jesus Mari Lizundia Bernedo

2021eko abenduaren 11n hil zen, 76 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Irribarre bat izaten zendun
Ziarda Txiki aipatzean
ta pasautako une edarrak
ezin geratu atzean.
Zure zain beti amets batean
etxeko atari ertzean.
Maite zaitugu ta egongo zera
beti gure bihotzean.**

Etxekoak

Patxi Iraola Zialzeta

**Itsasoari begira
bota duzu azken irria
ta gurean utzi duzu
hutsune haundia.
Adiorik ez, Patxi!
bego gure artian,
zutaz harro gaude
Elgoibarko Udaltzaingoko
lankide guztiak**





San Roke inguruko baldosa batzuk solte daude: "Kiroldigitik Basartera arteko tarte horretan baldosa batzuk solte daude, eta euria egiten duenean horietakoren bat zapalduz gero, bustitzeko arriskua daukagu. Dagokionari eskertuko genioke konpontzea".



Kalamua eta Urazandi kaleak elkartzeko asmorik ba al du Udalak?: "Galizia plaza ingurutik badago Kalamua eta Urazandi kaleak elkartzeko aukera, eta horrek dudarik gabe asko hobetuko luke Urazandiko trafikoa. Auzoko trafikoa norabide bakarrekoa izateko aukera egongo litzateke, eta bereziki, Herri Eskolarako sarrera-irteera orduetan sortzen diren auto pilaketak sahiestuko lirateke". Hirigintza Sailetik esan dutenez baidute obra hori egiteko asmoa. Bide berri horren azterketa egingo dute, aurrera begirako planifikazioa egiteko.



Virtudes Izquierdo Delgado

2021eko abenduaren 11n hil zen, 95 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Maria Eloisa Ecenarro Loyola

2021eko abenduaren 15ean hil zen, 92 urte zituela. Hileta elizkizuna gaur, abenduak 17, izango da, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Gure ondotik joan zera baina betiko izango zaitugu gure bihotzean.

Etxekoak



17.702.000 euroko aurrekontua onartu du 2022rako Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalaren aurrekontua 17.663.500 eurokoa izango da datorren urtean, 2021ekoa baino %4,27 handiagoa, hain zuzen ere. Osoko bilkuran onartu zuten aurrekontua astelehenean, EAJ-PNV (8) eta PSE-EEren (1) aldeko bozkekin. Elkarrekin Podemos alderdiak (1) abstentzioaren alde egin zuen eta EH Bilduk (7) kontra bozkatu zuen. Inbertsioetara ia 2.300.000 euro bideratuko dituzte, eta besteak beste, ondorengoak egingo dituzte: Errotaberriko igogailua (560.000 euro), ludoteka berria (260.000,00 euro) eta Sigma auzoaren irisgarritasuna hobetzea (255.000euro). Aurrekontuaren %28 Gizarte Ongizate Sailera bideratuko dute, 5.100.000 euro, eta gizarte zerbitzuetako partida 1.724.552,02 eurokoa izango da, iaz baino %49 handiagoa (1.163.300 euro 2021ean). Kultura Sailaren aurrekontuak %5 egingo du gora, 50.000 euro gehiago, alegia, guztira 564.751 euro. Hezkuntza eta Euskara arloak, bestalde, %13 haziko dira, eta Gazteria %7, ludoteka berria kontuan hartu gabe. Aurrekontuei buruzko xehetasun gehiago, *barren.eus* atarian

Elkarrekin-Podemosen abstentzia

Udal aurrekontuetan Elkarrekin Podemosek egindako hiru ekarpen barneratu dituzte: Herriko zuhaitzen azterketa egitea, klima aldaketari buruzko jardueren programa eta ekintza berriak garatzea eta Agenda 2030 programaren diru partida 25.000 eurotik 60.000 eurora igo dute. Alderdiak egindako hainbat eskakizun betetzeko aukera ikusi dutenez, aurrekontuetan bozketan abstenitu egin dira: "Gure indar apala onartzu eta hainbat partidatan uda-

lerria hobetzeko gai puntualetan jarduteko kapital nahikoa dagoela ikusiz, defizitarioagoak ikusten ditugun gaitan zentratzen gara, eguzki-plakak, Agenda 2030 eta merkataritzarako eta ostalaritzarako laguntzak instalatzeko gehiago eskatuz, 145.000 euroko igoerarekin".

EHBildu, kontra

EHBilduk aurrekontuen kontra bozkatu du, beraien aurrekontu proposamenetik "oso urrun" dagoelako Udal Gobernuan aurkeztu duen aurrekontua. Aitziber Aranberrik osoko bilkuran esandakoaren arabera, EHBilduk urriaren amaieran eskatu zion Udal Gobernuari aurrekontuen prestaketa herritarrekin partekatze, Udalaren asmoen berri emateko eta ekarpenak egiteko tresnak eskaintzeko, baina esan zuenez ez dute erantzunik jaso, eta aurrekontuak egiteko prozeduran ez dute inolako aldaketarik ikusi. Aitziber Aranberrik gaineratu zuen EHBildu prest agertu zela aurrekontuei buruz hitz egiteko, bereziki, ondorengo gaien inguruan: herritarren partaidetzarako Udal-plana, kudeaketa-eredu parte-hartzaileago batean urrats eraginkorrak egin ahal izateko; inbertsio sozialak, eten digitala, hezkuntza-arrakala edo pobrezia energetikoa bezalako egoerei aurre egiteko; ekonomia publikoa, interes publikoko proiektuak sortzea ahalbidetuko duena, hala nola energia-komunitateak edo Herribusaren hedapena. Maialen Gurrutxaga EAJko bozeramaileak erantzun zion Aitziber Aranberri esanez ez dutela aurrekontuen gaineko proposamen zehatzik jaso EHBilduren partetik, jaso dutena balorazioa besterik ez dela izan eta ez dutela ikusi lanean hasteko inolako proposamenik.

4.000 sinadura bildu nahi ditu 24/7 plataformak, anbulatorioa 24 orduz zabaltzeko

Anbulatorioa eguneko 24 orduetan eta asteko zazpi egunetan zabaltzeko eskatzeko 4.000 sinadura bildu nahi ditu 24/7 plataformak, eta dagoeneko, 2.500etik gora bildu dituzte. Pandemiarekin batera, Elgoibarko anbulatorioa arratsaldeko 17:00etan ixten hasi ziren, eta larrialdi zerbitzua ere kendu egin zuten. Hori berreskuratzea da beraien nahia, "herritar guztien mesederako". Sinadura horiek guztiak Udalean aurkeztuko dituzte ondoren, eta Udalari eskatuko diote Osasun Sailera eramateko. Ez dakite Udala bitartekari lan hori egiteko prest azalduko den, baina itxaropentsu daude, ikusi dutelako herritar askoren babesa jasotzen ari direla. "Osasunari lotutako gaia da hau, ez da gai politikoa, eta uste dugu Udala inplikatu egin behar dela". Ezezko erantzuna jasotzen badute, plataformako kideak zuzenean joango dira Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailera sinadurak entregatzera. Mozio bat aurkeztu dute Udalean, eta abenduaren 22ko osoko bilkuran eztabaidatuko dute. Plenoaren aurretik manifestazioa egingo dute.



Txankakuak 1.800 euro erosketa-bonutan eta Gabonetako sei otar zozkatuko ditu

Txankakuak, Elgoibarko Merkatarien Elkar-teak, Gabonetako kanpaina jarri du abian eta herriko denda txikietan erosten dutenak saritu nahian bi zozketa egingo dituzte. Batetik, Gabonetako sei saski zozkatuko dituzte eta parte hartzeko, dendetan erosketa egin ondoren emango dieten erosketa-tiketa dendan bertan jarriko duten kaxan sartu beharko dute bezeroek, izena eta telefono zenbakia idatzita. Zozketa abenduaren 22an egingo dute arratsaldean.



Bestalde, 1.800 euro zozkatuko dituzte hamar saritan banatuta (500 euroko bi sari eta 100 euroko zortzi sari). Diru sari horiek Txankakuako dendetan gastatzeko erosketa-txartel bidezkoak izango dira. Kasu honetan, erosketa dendan egin ondoren, parte hartzeko txartelak banatuko dituzte dendariak eta bezeroek gorde egin beharko dituzte. Zozketa 2022ko urtarrilaren 7an egingo dute.

Jubilatuen Biltokikoek Bordelera egin dute txangoa

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiko 45 lagunek hiru eguneko txangoa egin zuten Frantziara abenduaren 4tik 6ra bitartean. Bordelera, Akitaniako hiriburura, joan ziren eta hango hainbat auzo eta monumentu bisitatu zituzten, Munduko Hiri Ondare izendapena ematen diotenak herriari. Garona ibaiaren ibarrean eta itsas bazterreko Arcachon portuan izan ziren eta turismorako hiri polita dela esan dute. Mahasti eta ardoaren upategi famatuaren ertaroko Saint Emilion herria ere ikusi zuten. Bidaia pozik egin zutela eta horrelako txangoak sarriago egitea eskatu dute erretiratuek.



Gaur da azken eguna Pedro Mugurutzakalearen izena aukeratzeko

Pedro Mugurutzakalearen izen berria aukeratzeko herritarrek proposatutako hamar izen ipini ditu aukeran Udalak, eta gaur da iritzia emateko azken eguna. Hiru bide daude parte hartzeko: Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ), *elgoibar.eus* webgunea eta etxez-etxe banatutako esku-orrietako QR kodea. Hamar izenok daude aukeran: Toletxe; Martxoak 8; Memoria-ren Etorbidea; Makina-erremintaren Etorbidea; Artetxebide; Euskal Herria; Erraketistak; Eguzkilore Etorbidea; Askatasun Etorbidea; eta Arkitekto onen Etorbidea.

Unai Arizmendiarrietak zinegotzi kargua hartu du

Asteleheneko osoko bilkuran hartu zuen Unai Arizmendiarrietak EAJko zinegotzi kargua, Gorka Garaizabalen lekua hartuta. Zinegotzi izateaz gain, Kirol Patronatuko lehendakaria ere bazen Garaizabal, eta kargu hori Iñigo loiola EAJko zinegotziak izango du aurrerantzean.



Gizon bat atxilotu zuten martitzenean Sallobenten ariketa fisikoa egiten ari zen emakume bati eraso egiteagatik

Gizon batek eraso egin zien martitzen arratsaldean Sallobente auzoan ariketa fisikoa egiten ari ziren hiru emakumeri. Gertakaria 17:15ean gertatu zen baselizaren atzeko zelaigunean. Emakumeek esandakoaren arabera, "bat-batean" eraso egin zien gizonezkoak, aurrez euren arteko hartu-emanik izan gabe, eta emakumeetako bat buruan zauritu zuen burdinezko objektu batekin edo kolpatuta. Anbulantzia bertaratu zen eta medikuak hartatu zuen emakumea. Udaltzainak eta Ertzainak eta joan ziren Sallobentera, eta gizonezkoa atxilotu zuten.



Udalaren gaitzespen mezua

Elgoibarko Udalak Sallobenten hiru emakumeri egindako eraso gaitzesteaz gainera, elkartasuna adierazi die emakumeei eta haien hurbilekoei. Sallobente-Ermuaran auzoa, herriko hamaika emakumeren aisialdirako espazioa dela nabarmendu dute Udaletik. "Honek guztiak izugarritzko kaltea sortzen du jendartearen. "Emakumeen buruetan beldurra oso presente dago: beldurra kirola egitera kalera irtetea, beldurra iluntasunean bakarrik ibiltzean, beldurra festa gau baten ondoren etxera itzultzean, beldurra amaren aldeetik alaba etxera bakarrik itzultzen delako, beldurra gauz oinez joan baino taxi bat hartzea nahiago duen nerabeak, beldurra autobus batean begiratua sentitzen den emakumeak... Beldur edo beldur sentsazio hori gutxitan partekatzen dute gizonak. XXI. mendean garatutako gizarte batean bizi arren, kalean mugitzeko askatasun-marjina ez da berdina mutila edo neska bazara", adierazi du Udalak prentsa ohar bidez. Elkarretaratzea deitu zuten atzo arratsalderako eta Udalak jakinarazi zuen bat egingo zuela antolatzen ziren gaitzespen-ekimenekin.

14 komertzio, eskaparate lehiaketan

Elgoibarko Udalak eskaparate lehiaketa antolatu du bigarren urtez, eta 14 komertzio ari dira parte hartzen: Agurtzane lleapaindegia, Arauri, Astigarraga Gys Sport, Ecenarro, Gemma estudioa, Farmazabal, Karkizano, Kima Bioestetika, N1 en zapatillas, Nalai, Noa, Sarasketa Ortopedia, Eizaguirre okindegia eta Pitxintxu. Udalak argidun gortina bat banatu die establezimenduei, eta urtarilaren 6ra arte izan beharko dute eskaparatean, eguberrietako apaingarriekin. 16 urtetik gorako herritarrek aukeratuko dute gustukoena euren botoen bidez, eta parte hartzen duten guztien artean 50 euroko erosketa bonoa zozkatuko du Udalak, parte hartu duten dendetan gastatzeko. Lehiaketaren irabazleak 300 euroko erosketa bonoa jasoko du, bigarren sari-tuak 200 eurokoa eta hirugarrenak 100 eurokoa.

Urazandiko auzo-elkarteko bilera, astelehenean

Urazandi auzo elkarteko arduradunek bilerara deitu dituzte auzotarrak astelehenerako. Udalak Urazandi auzorako aurreikusituen obren gaineko informazioa emango dute bileran: Besteak beste, King-Kongeko zubia eta auzoko irteera berria izango dituzte hizpide. 19:00etan izango da batzarra, haurreskolako eraikinaren arkupean.

Arnaldo Otegi, Jesus Egiuren eta Pello Rubiorekin mahaingurua abenduaren 22an

Elgoibarko Udaleko Bizikidetza Mahaia, Herritarren Bizikidetza Foroarekin elkarlanean, Bizikidetza ereiten jardunaldien bigarren edizioa antolatu du, eta horren barruan, *Bakearen sukaldeak* mahaingurua egingo dute abenduaren 22an. Arnaldo Otegi, Jesus Egiuren eta Pello Rubio batuko dituzte, eta Mainer Marañña Baketik Fundazioko teknikariak moderatuko du mahaia. 19:00etan izango da, IMHko areto nagusian.



Gabon Zaharreko feria bertan behera

A benduaren 31 n ospatzekoa zen Gabon Zaharreko azoka bertan behera lagatzea erabaki du Elgoibarko Udalak Covid-19ak eragindako egoera epidemiologikoa dela-eta. Udaletik nabarmendu dute "oso erabaki zaila" izan dela, bereziki azoketara joaten diren ekoizleengatik, eta feria honen inguruan hiri ekonomian sortzen den mugimenduagatik. "Baina uneak erabaki hau eskatzen du, zuhurtziaz jardun eta herritarren osasuna lehenesteko".

Azoka bertan behera utzi arren, Gazta Txapelketa mantenduko dute. Udaltxean ez da publikorik izango, baina streaming bidez emango dute Udalaren webgunean.

Arizmendiarieta Saria Alcorta Forging Groupentzat

Arizmendiarieta Sariaren estreinako ekitaldian Elgoibarko Alcorta Forging Group enpresa saritu dute, "enpresan eredu barnertzaile eta parte hartzailea" sustatzeko egin duten lanari aitortza eginez. Enpresako zuzendari Lorenzo Mendietak jaso zuen saria Bilboko alkate Juan Maria Aburtoren eskutik. Zuzendariaren esanetan, Alcorta etekin ekonomikoez haragoko helburuak dituen enpresa da. "Pertsonaren inguruan eratutako enpresa izan nahi dugu; bidezkoa eta solidarioa. Langileek parte hartu, inplikatu, iritziak eta botoa emateko aukera duena. Arizmendiarietak zituenekin bat egiten dute balore horiek".



Kudeaketa aurreratuaren ziurtagiria lortu du IES Elgoibar BHI zentroak

IES Elgoibar BHI hezkuntza-zentroak Eusko Jaurlaritzak ematen duen kudeaketa aurreratuaren brontzeko A aitortza jaso du. Aintzatespen hau lortu duen lehen institutua da. Kudeaketa-jardunbideetan aurreratuaren dauden erakundeek jasotzen dute aitortza hau, praktika aurreratuak dituzten eta bere interes taldeen asebetetze orekatua bilatzen dituzten erakundeak sarituz.



Gorputza eta sexualitateari buruzko jardunaldia bihar

Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak *Gure gorputza eta sexualitatea* formakuntza saioa antolatu du biharko. Lilan, Elgoibarko Emakumeen Etxean, egingo dute trebakuntza saioa 9:30ean hasita.

Ziklo menstrual bere osotasunean ezaugaraziko dute antolatzaileen esanetan, hutsune handia dagoelako emakumezkoen gorputzen inguruko jakintzan eta hilekoaren inguruan: "Tabua, lotsa, beldurra, mina... dira hilekoarekin lotzen diren hainbat kontzeptu. Fase desberdin bakoitzean hormonen dantza izan ohi da eta, ondorioz, garrantzitsua da jakitea behar eta desio desberdinak edukitzen direla; hilekoa odola baino gehiago baita". Jardunaldi honetan hilekoaren ziklo osoa eta haren faseak azalduko dira, norberaren auto behaketatik eta bizipenetatik hasita.

Saioa herriko emakume gazteei (16-26 urte) zuzendua dago, eta hiru aditu izango dira hizlariak, Nora Kortaberriak gidatuta: Zuriñe Hidalgo, abeslaria, komunikatzailea, irakaslea eta azken urteetan emakumearen ziklikotasuna aztertzen diharduena; Iratxe Garate, fazialista eta emakumeen terapeuta; eta Enara I. Dominguez, hilekoaren kulturari eta ekonomia feministari buruzko *Ziklikoki bizitzen* blogaren arduraduna. Hizketaldiez gain pintxo-bazkaria eta bazkalostean Maialen Akizu eta Amaia Agirrerekin bertso saio feminista izango dira; eta 19:00etan, Alarma Morea taldearen kontzertua Aita Agirreko Kultur Kafean.

Egitasmo honen baitan, kopa menstrualen ezagutza sustatu nahi dute berak eskaintzen dituen abantailak zabalduz. Horretarako, Berdintasun Sailak kopa menstrualak banatuko ditu urtarilaren 9a baino lehen helbide honetan: (https://labur.eus/hilekoaren_kopa).

Udal ekipamenduetako arreta zerbitzuetan (HAZ, Gotzon Garate Udal Liburutegia, Udal Euskaltegia, Ludoteka, Gaztelekua, Olaizaga kiroldegia, Inazio Bereziartua musika eskola eta Herriko Antzokia) ere emakumeentzako higie produktua izango dira.



Jatorrizko Villamayor de Marquinari buruzko irudi figuratiboa, Elgoibar izeneko lursailean eraikia, 1346ko abenduaren 20an sortze-gutuna jaso ondoren

1346-2021: Elgoibarrek 675 urte

Elgoibarrek 675 urte beteko ditu abenduaren 20an, eta egun berezi hori ospatzeko, urte osorako egitaraua prestatu du Udalak, herriko historialariek eta beste hainbat eragilerek elkarlanean. Urtea hasi zenetik bukaerara arte hainbat ekitaldi egin dituzte 675. urteurrenari lotuta, eta datorren astelehenean emango diote amaiera urteurrenari. Orriotan jaso dugu Elgoibarren sorreraren laburpena, Javier Elortza historialariaren 'Villamayor de Markina, Elgoibar deitua' liburuko informazioa baliatuta.

- AINHOA ANDONEGI -

Elgoibarko herria sortu aurretik, bazen hainbat bizilagun ez osatutako bailara edo lurralde bat. Bailara horri Marquina de Suso y de Yuso deitzen zioten, eta Elgoibarko, Soraluze eta Eibarko lurretan zegoen. Lehenengo biak, hau da, Elgoibar eta Soraluze Marquina de Yuso delako lurraldean zeuden; eta azkena, Eibar alegia, Marquina de Suso delakoan. Pixkanaka-pixkanaka banatzen joan ziren, eta bakoitzak bere mugak ezarri zituen. Horrela bada, herriak sortuz joan ziren. XIV. mendean, 1343ko urriaren 15ean hain zuzen, Soraluze hiribildu bihurtu zen. Mende horretan, Marquina de Yuso lurraldean bizi zirenak mendietan sakabanatuta bizi ziren, jasaten zituzten lapurreten eta harrapaketen ondorioz. Egoera hura zela-eta, bertako jendea *Campo de Elgoibar* izeneko lurraldean bildu zen euren hiribildua egiteko. Lurralde hura San Bartolome monasterioari zegokion, eta erregearen jabetzakoa zen. Hortaz, Alfonso XI Gaztelako

erregeari aurkeztu zizkieten euren eskakizunak. Erregeak, 1346. urtean, baserritar, olagizon eta errotari haien eskariak onartu zituen, eta adierazi zien zeintzuk izango ziren herria egiteko berak aukeratu zituen lurak. Erregeak baimena eman zien *Campo de Elgoibar* izeneko lurretan, herria egin eta harresiz inguratzeko, eta euren egoki irizitako dorreak egiteko. Halaber, hiribildu berriari atxikitutako udal barruti zabala ere zehaztu zuen: bailaren barruetatik Madaltzaga eta Mendaro arteraino, eta goiko aldean, batetik Muskiritzu mendilerroa eta Azkoitiarekiko mugakide diren tontorrek; eta goiko beste aldetik, Maiza mendilerroa (egungo, Kalamua), Markinarekin mugakide diren gailurretatik Arranoate alderaino, Mutrikuko lurak ere ukituz. Hiribilduari Villa Mayor de Marquina izena jarri zioten.

*Erregeak baimena eman zuen
Campo de Elgoibar izeneko lurretan
herria egin eta harresiz inguratzeko.
Hiribilduari Villamayor de Marquina
jarri zioten izena.*

Hiribildu harresitua eraikitzeak aukeratu zuten tokia Deba ibaiaren ondoan dagoen ibaiertzeko lur-zabala da, pare bat kilometrokoa. Gune hau, iparraldetik hegoaldera, Ugarroa erreka-stotik

Aintzinako Villamayor de Marquinaren eta goiko eta beheko errebalen bilakaeraren irudi figuratiboa, Erdi Aroaren amaieran.

-Andikao inguruan-, Magdalena ermitan bertan ibairatzen den Basarte errekaraino doa. Beheko muga Deba ibaiaren ibilguak markatzen du; goikoa, berriz, mendiko gailurrera igotzen den errege-bidearen trazadura da. Gune honen erdiko aldean, ibai ertzean, 177 metroko luzeera eta, batzaz beste, 82 metroko zabalera dituen 14.500 m² inguruko lautada eroso bat zegoen eta eremu harresitua hor egitea erabaki zuten. Ondorioz, oinplano eliptikoa zuen hiribildua sortu zuten, ertzetan estutua eta hiru etxe-ilaratan egituratua. Etxe-ilara horien erdi aldean zeharkale bat zegoen, komunikaziorako ez ezik, suteak mozteko ere balio zuena, eta etxe haien artean kale-bide bi ere bazuden luzetara. Halaber, zubi nagusia dagoen portalearen sarreraren ondoan, eremu publiko txiki bat jarri zuten, udaletxeko egungo plazaren aurrekari izan zena. Hasiera hartan, egurrez egiten ziren etxeak. Ondorioz sute ugari izaten zen, 1560ko ekainaren 16an, ama-alaba batzuen erruz gertatutakoa esaterako. Errudunak sortutako kalteak ordaintzera zigortu zituzten, eta hiribildutik bota zituzten betiko.

Hango bizilagunen bizimodua arautu ahal izateko, Mondragoiko hiribilduari bezala, Villa Mayor de Marquina zelakolari ere Logroñoko forua eman zioten. Erregeak emandako beste arau baten bidez, inolako eragozpenik gabe, urtean behin, euren alkateak eta ofizialak aukeratzeko eskubidea zuten, eta haiek entzun eta epaituak izatekoa. Eskubide hau herriko biztanle orok izango zuen. Dena dela, lurrak, lur horietan aurkitu zituzten edo aurkituko zituzten urre eta zilar meatze guztiak, eta eraikiko ziren burdinola guztiak herritarrei uzten zizkien arren, erregearen jabetzakoak ziren guztiak. Hala ere, ordurako eraikitzen ziren burdinola eta etxalde guztiak norbanakoenak izango ziren. Beste arau baten arabera, errespetatu egin behar zituzten Olasoko San Bartolome monasterioaren ondasunak, hala nola, errotak, etxeak, sagastiak...



Lehen Modernitatean, erlijio-guneak sortu zirenean, Elgoibarko hiribilduan izandako aldaketen irudi figuratiboa

Erdi Aroko Gipuzkoako gainerako hiribilduetan bezala, XV. mendean eta, bereziki, 1450etik aurrera, Elgoibarrek hazkunde demografiko nabarmena izan zuen. Harresi-barrutiak zituen mugengatik herria zabalitzea ezinezkoa zenez, herriko muturretan errebalak artikulatzen hasi ziren. Bi errebal sortu zituzten garai hartan gure herrian. Garrantzitsuena, "errebal" izena bereziki dagokiona, Beheko edo Yusoko errebala izan zen. Herriko arteria luze hau harresiaren iparraldeko atea igaro ahala hasten zen, eta amaiera, Maala aldean zeukan, Basartetik jaisten zen erreka markatzen zuena. Trazadura lerrozuzena da gehienbat, Deba ibaiaren ibarrak mugatzen badu ere. Trazatuak, batzaz beste, 325 metroko luzera eta 45 metroko zabalera du, eta guztira, 14.625 m²-ko azalera. Bestea, Goikoa edo Susokoa deitua, ibaiaren beste aldean zegoen, herriko alde altuan, herrira sartzeko zubi

nagusiaren eta Villaviciosa de Marquinara joateko erregebidetako hasieraren artean. Errebal hau txikia zen behekoarekin alderatuta, eta bertako eraikinek ez zuten antolamendu ordenaturik.

Hazkunde demografikoari eta ekoizpen jardueren garapenari esker, garai distiratsua bizi izan zuten XVI. mendearen hasieratik, kultugune berrien eraikuntzei dagokienez. Eraikin erlijioso horiek eragin nabarmena izan zuten herriaren morfologian. Bereziki, fundazio horietako bik lagundu zuten hiri-multzoa aldatzen eta osatzen: Alde batetik, San Frantzisko monasterioa daukagu. 1516tik aurrera eraiki zuten, herriko beheko errebalaren hasieran. 1499an inauguratu zuten Pietatearen ermita izan zen monasterio honen aurrekari hurbila. Azken egiturak XX. mendean eraitsi ziren arren, Maalan amaitzen den kaleak, oraindik ere, izen horri eusten dio. Beste fundazioa Santa Klara komentua zaharra izan zen, duela urte gutxi arte izen bereko ordenako mojak zuzendu zutena. 1533an ekin zion ibilbideari, garai bateko goiko errebalen. Markinarako errepidearen hasieran zegoen, eta bide eman zuen hirigune horretan hirigintza garapen handia izateko. Eraikuntzari


dagokionez, urte horietan harriak aurrea hartu zion egurrari. Adibide gisa, gaur egun desagertuta dagoen San Frantzisko komentua aipa dezakegu. 1516an hasi ziren komentu hori eraikitzen.

Urteetan zehar, industria siderurgikoak gure herrian izan duen garrantzia aipatu behar da. Industria mota hau herria sortu aurretik ere ezarrita zegoen gure bailaran. Horren froga dira Lasaldeko eta Andikanoko burdinolak. Alfonso XI.a erregeak 1335. urtean hiribilduari Marquina de Suso bailarako *Fuero de las ferrerías* izendapena eman zion. Hainbat urte igaro ondoren, 1446. urtean hain zuzen, burdinolen jabeak eta bertako olagizonak Elgoibarko Maalako ermitan bildu ziren, ordenantza horiek berriz ere antolatzeko. Burdinoletan lantzen zuten burdin materiala itsasoz ekartzen zuten Bizkaitik Debako porturaino. Ondoren, ibaian gora, Altzolaraino eramaten zuten gabarretan, bertan ontziraleku txiki bat zegoelako. Gurdizainek, idiek tiratutako gurdien bidez, materiala zegoen burdinolan uzten zuten, eta burdinoletan landutako materiala, berriro ere, Gaztelara eramaten zuten gurdizainek.

Hiri-gutuna

Hiri-gutuna Erdi Aroan agintari batek (errege, elizgizon edo jaun batek) lurralde bateko biztanleei hiria eraikitzeko kokalekua emateko agiri berezia da. Gure eskualdean sortu ziren herri-gutune hauetako biztanle gehienak inguruetako baserrietakoak ziren, baina kasu batzuetan kanpotik ere etortzen zen jendea. Hiri-gutunear, agiri juridiko eta administratiboa den aldetik, arau orokorrak jasotzen dira, hau da, biztanle berriek edo gerora etorriko direnek bete behar dituztenak: betebeharrak, zerga-salbuespenak, pribilegioak, foruak... Elgoibarko hiri-gutuna Alfonso XI Gaztelako erregeak eman zuen, aro kristauko 1346. urteko abenduaren 20an.

Elgoibarko hiribilduaren 675. urteurrena dela eta, Elgoibarko Udalak ikastetxei zuzendutako esku-orri bat argitaratu du, Hiri-gutunari lotutako honako edukiekin: Hiri-gutunaren definizioa, bere berezitasunak, eta Elgoibarko udalerriko mugarren inguruko informazioa.



Urteurrenari lotutako ekitaldiak

- Urtarrila: Altzolarren Dorretxea Filatelia taldeak 675. urteurrenari eskaini zion zigilu erakusketa.
- Otsaila: 'Yulen 100 urte' argazki erakusketa antolatu zuen Ongarrik, Julen Zabaletaren marrazkiekin.
- Apirila-maiatza: Elgoibarko sorreraren hiri-gutuna banatu zuten ikastetxeetan.
- Iraila: Herriko hainbat puntutan panelak jarri zituzten, herriaren sorrerako planoekin. QR kodeekin, historiako testuak irakurtzeko edo entzuteko aukera eskaintzen dute panel horiek.
- Azaroa: Javier Elortzaren 'Elgoibarko Santa Klara ordenako mojen monasterioa. Komunitatearen sorrera eta bilakaera XVI. mendean zehar' liburuaren aurkezpena.
- Abenduak 20: Txistularien diana, dultzaineroen diana, txalaparta jotzea, 'Yulen 100 urte' liburuaren aurkezpena.
- Urtarrila: Orri markagailuen lehiaketa, 675. urteurrena ardatz hartuta.



KIMA

Abenduaren Teitk 24ko!
Kima Bilestatikako bezeroen artean,
eguneko zozketa bet!

TELEFONO BARRUKO
646 563 706

Gabon zoriontsuak!



AGURTZANE
c.b.

ilkerpamirredja

GABON ZORIONTSUAK!

Santa Ana, 18
Elgoibar
943 741 884



GHD ILERAKO PLANTXAK
30€ko deskontua dauzkagu,
gabon hauetan opari
ezinhobea egiteko aukera
izango duzue!



urkotronik

OSTALARITZAN ETA
VENDING-EAN ADITUAK,
1983AZ GEROZTIK.

ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!



www.urkotronik.com | 943 203 112 / 902 127 137
urkotronik@urkotronik.com

Zentzuz erosi.
Ondo informatu zaitez.
Ezagutu zure eskubideak.
Baztertu estereotipoak.

Zeu zara zure influencer onena.

#KontsumitzenJakin



kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

Urak lurra irentsi duenekoa

Hiru astez jarraian egin zuen euria azaroaren 21etik abenduaren 11ra arte, eta horri mendietako elurren urtzea gehitu zitzaion gainera. Ibaiek gainezka egin zuten Euskal Herriko hainbat eremutan, eta Deba ibaiaren ur goraldiak ere ondorioak utzi zituen gurean. Azaroko azken asteburuan eman zuen lehenengo abisua denboraleak, baina okerrera abenduaren 9tik 10erako gabean iritsi zen. Mendaro inkomunikatuta geratu zen errepidez, eta Elgoibarren ere kalteak eragin zituen urak, Altzolan bereziki.

- AINHOA ANDONEGI -



Mendaro

Euskalmetek emandako datuen arabera, azaroaren 21etik abenduaren 11ra bitartean, metro koadroko 441 litro pilatu ziren Altzolako estazio hidrometeorologikoan, eta bi errekor historiko ere gainditu ziren, Miriam Ruiz Euskalmeteko meteorologoak argitu duenez: batetik, azaro hau azken urteetako euritsuena izan da, eta metro koadroko 297 litro euri bota ditu gurean (orain arte zenbatu denetan, metro koadroko 208 litro bota ditu gehien), eta bestetik, abenduan, dagoeneko, metro koadroko 225 litro pilatu dira (errekorra 160 l/m²koa zen).

Hiru astez etengabe egin zuen euria, harik eta abenduaren 12an eguzkiak irten zuen arte: "Antizikloia Atlantikoan egon da, eta borrasak Europa osoan, baina bereziki, iparraldean. Depresioak edo borrasak bata bestearen atzetik sartu dira eta fronte batzuk oso aktiboak izan dira gainera, eta euri asko utzi dute. Bi-hiru hilabeteetan egiten duen euria egin du hiru astetan, gutxi gorabehera", esan du Ruizek. Aire hotzak, bestalde, elurra ekarri zuten, baina gero fronte beroarekin tenperaturak gora egin zuten, eta mendietan urtu zen elurra ibaietara joan zen zuzenean: "Naguan horrelakoak gertatzea ohikoa da, baina ezohikoa izan da hainbeste fronte bata bestearen atzetik etorri izana". Azaroaren 25ean, Altzolako estazio hidrometeorologikoan, metro koadroko 90 litro pilatu ziren eta hori "izugarria" dela azaldu du Miriam Ruizek, baina orduan Deba ibaia ez zetorrela horren handi eta ondo erantzun zuela argitu du. Joan zen astean ez zuen horrenbeste euri bota, 67 l/m²ko pilatu ziren, baina ordurako ibaia hazi-hazita zetorren eta gainezka egin zuen. Deba ibaiaren ur goraldiak kalteak eragin zituen gurean abenduaren 9tik 10era bitartean, eta goizean, urak hartuta esnatu ziren bazterrak. Mendaro herria bakartuta geratu zen errepidez behinik behin, eta ho-

rrekin batera, Mendaro Ospitalea ere bai, Debabarrenako erreferentziako ospitalea. Bertan behera laga behar izan zituzten hainbat kontsulta. Gainera, iluntzera begira, kontingentzia plan bat prestatu zuela zabaldu zuen Osakidetzak, pazienteen beharrei erantzun ahal izateko Mendaroko egoerak okerrera egingo balu. Hala ere, egoera zail denetan bezala, izan zen goiz horretan eta ondorengo orduetan eskuzabaltasun keinurik. Mendaroko Ospitaleko larrialdi zerbitzuetan, esaterako, herrian bertan enpresa duen gizon baten bisita jaso zuten goizean. Patrolean iritsi zen. Enpresan, egun horretako lanak biharamunerako utzi zituztela esan zuten eta txartela laga zuten osasun-langileei, gaitxoak hara-hona eramateko bere premia balute abisatzeko esanez. Artean, errepide nagusia itxita zegoen, baina mendi bidez iritsi ziren bakanen batzuk Mendarora, Berazetatik barrena. Horixe izan zen, esaterako, Elgoibarko Urazandiko okinak egin



Altzola

zuen bidea. Hala kontatu du Saioa Andonegi Coviran dendako arduradunak. Esker on hitzak izan ditu Andonegik hornitzaile dituen Elgoibarko Ibarrenea eta Urazandi okindegikoentzat. “Guk ez genuen ogirik falta izan eta estimatzen diegu. Bi zakukada ogi hartuta tren ez etorri zitzaigun Edu Ibarreneakoa, eta mendiz, Antonio, Urazandi okindegikoa”.

Izan ere, goizean ezinezkoa zen errepidez Mendarora iristea, 634 errepidea moztuta zegoelako, bai Debarako noranzkoan eta baita Elgoibarrerakoan ere, eta tren ez bakarrik iritsi zitekeen Mendarora (arratsaldean zabaldu zuten errepidea, Elgoibar aldera lehenengo eta Debara gero). Jende ugari hartu zuen Mendaroko tren geltokiak abenduaren 10ean eta ezohiko argazkia izan zen hori bera.

Horren ezohikoa ez, baina, aspaldian ikusi gabeko argazkia utzi zuten uholdeek Garagartza auzoan ere. Auzoko bizilagunak etxetik irten ezinda gelditu ziren, ia auzo osoa urak hartu zuelako. Deba ibaia hazi-hazita zetorren, eta egoera horretan, Kilimon ibaiak ezin zituen bere urak Deba ibaira isuri. Abenduaren 9an, eguerdirako, ura gelditzen hasia zen Kilimon errekan, Abarketeroneko parean. Ez zen seinale ona. Hurrengo 12-18 ordutarako euri asko iragarria zuen Euskalmetek, gainera, eta okerrenerako prestatzen hasi ziren auzoan. Garaieak eta etxepeak hustu zituzten, eta errekarri begira igaro zituzten ondorengo orduak, jakinik biharamunean erratzak eta mangerak hartuta lanean eman beharko zutelako berriro ere. Debak gainezka egin zuen Azpilgoetan, Arranbide inguruan, eta Kilimonek ere bai, Garagartzan, gauerdian. Garagartza auzoa uharte bat zen ur gezako itsasoan. Garai batean sarri izaten zituzten uholdeak Mendaron (1953, 1983 eta 1988koak izan dira handienak), baina 90eko hamarkadan Kilimon errekan kanalizazioan egindako lanek urteetan saihestu izan zituzten uholdeak, hari eta 2011ko azaroaren 6an Kilimon errekan berri ere gainezka egin zuen arte. Geroztik,



Elgoibar

nahi baino gehiagotan izan dituzte arazoak Garagartzan eta kezkatuta eta galderaz jositako daude auzotarrak. Ezinegon hori igarri-igarrikoa da Garagartza eta Trinitate kaleetan bizi direnengan, eta galderak baino ez dituzte. Alaitz Vives da kaltetuetako bat, eta erantzunak falta zaizkiela dio: “Euri gehiago egiten du orain? Edo, zer gertatu da bestela Kilimon errekan egin ziren lanek orain ez funtzionatzeko?”. Kilimon errekan egin zituzten lanei esker, urte askoan Garagartzan ufal ikusi gabe egon zirela zehatu du Vivesek, baina 2011tik 2016ra bitartean bost bat aldiz urak Garagartza azpian hartu zuela adierazi du, eta gero, gehiagotan ere bai. Orduan, 2016ko ufal handien ondoren, Udalarekin, Foru Aldundiarekin eta Ur Kontsorzioarekin bildu ziren Garagartzako zenbait bizilagun, jakin nahi zutelako zer aldatu zen Deba eta Kilimon ibaietan, berri ere Mendaron ufalak egoteko. Datuak eskatzen zituzten, datu teknikoak, jakiteko ia benetan saihestezina zen euri gehiago egiten zuen aldiro auzoa urak hartzea. “Ikerketa tekniko bat egin zedin eskatzen genuen, datu zehatzetan oinarrituta, horren arabera hobekuntza lanak egiteko, baina ez genuen ezer lortu”. Beste kezka batzuk ere azaldu zituzten mendaroez orduan, esaterako, bai Deba eta bai Kilimon ibaietan hazi den landaretzaren inguruan: “Amazonas bat dirudi Deba ibaiak, sedimentazio asko dago eta iruditzen zaigu horrek metro kubiko asko kentzen dizkiola, baina landaretza hori beharrezkoa dela erantzun ziguten, bestela ura handi datorre-






nean dena aurretik eramaten duelako. Eztabaidagarria iruditzen zaigu hori". Udalarekin bileretan jarraitu zuten irtenbide bila, eta orain dela urte batzuk, 2017an, klapetak jarri zituen Udalak Kilimon errekan, urari kaleko estolderiarako bidea ixteko, erreka ur emaria handitzen zenean. Klapetak tapa moduko batzuk dira, eta Kilimon errekan urak gora egin ahala itxi egiten dira, ura estolderietatik kanpora ez irteteko. "Hori ondo dago, baina obra horri bigarren parte bat falta zaio, eta hori egiteko eskatzen diogu Mendaroko Udalari", esan du Vivesek. Izan ere, klapetak ixten direnean Kilimoi erreka ura ez da kanpora irteten, baina menditik datorren ura ere ezin da errekaratu, eta ur hori guztia Garagartza auzoan pilatzen da, Trinitate kaleko Casildaneko etxearen parean, hori delako punturik baxuena (hantxe dago klapetetako bat ere, eta arratsaldeko lehen ordurako itxia zegoen abenduaren 9an): "Deba ibaia ez dago hain urrun eta kalean pilatzen den ur hori ibaira eraman beharko litzateke, nolabait" adierazi du Vivesek. Azken ufalak "sekulakoak" izan dira. Trinitate kaleko lehenengo atarian ia 2,5 metroko altueraraino iritsi zen ura, eta Garagartza kaleko 21. atarirainoko portale eta garaje guztiak hartu zituen urak (Landa erretegiaren ondoko aparkaleku ertzearaino iritsi zen ura).

Medio guztietan irten zen Mendaró, eta Foru Aldundiko Eider Mendoza diputatua ere etorri zen Mendarora kalteak bertatik bertara ezagutzera. Vivesek adierazi du bilera bat egiteko konpromisoa agertu ziela bizilagunei. "Mendaron gutxi gara, herri txikia gara, baina besterik ezean bailarako ospitalea hemen daukagula aprobetxatu behar dugu indarra egiteko. Mendozak agindu zigun Aldundia, Ur Agentzia eta Udalarekin bilera bat egiteko aukera izango genuela behintzat. Ea ba!".

Iñaki Arregi Mendaroko alkateak elkartasuna adierazi die Garagartzako bizilagunei, eta horrekin batera, herritarren auzolanerako prestutasuna ere nabarmendu du. Garagartzako bizilagunek jasandakoaz gain, herriaren inkomunikazioa izan zela ondorioz txarrena adierazi du: "83ko eta 88ko uholdeetatik ez zen horrelakorik gertatzen. Deba ibaia bere bidetik irten zen, eta errepeidea itxi egin zuten, eta bide mozketak oso luzea izan zen gainera. Ura jaitsi zenean errepeidea zinkinkeriaz beteta geratu zen eta eskaini genuen geure burua hura garbitzeko, bidea lehenbailehen zabal zezaten, baina arriskutsua zela-eta, ez ziguten laga". Elgoibarrerako noranzkoa arratsaldeko 18:00ak aldera zabaldu zuten, eta Debarako bidea, 20:00ak aldera. "Ospitalari ere eragin zion horrek, eta horrelakorik berriz ez gertatzeko bailarako Udalak indarrak batu behar ditugu, ospitala ez delako Mendarokoa bakarrik". Etorkizunari begira esan du Ur Agentziarekin eta Foru Aldundiarekin bileretan jarraituko dutela, eta aztertuko dituztela horrelakoak berriz ez gertatzeko irtenbideak.





Mendaro

Altzola, Elgoibarren kaltetuena

Elgoibarren ere ohiko puntuetan irten zen Deba ibaia bere bi-detik. Maltzagarako bidegorrian gainezka egin zuen, eta kalteak eragin zituen. Bidea bera lokatzez beteta geratu zen, eta ibaiertzeko barandak ere hondatu zituen urak. Ane Beitia alkateak jakinarazi du gune hori Foru Aldundiaren eskumenekoa dela eta haiek arduratuko direla dena konpontzeaz. Herrigunean ere hainbat garaje eta lokaletan sartu zen ura ostegunetik barikura bitartean, besteak beste, Baltasar eta Goiko Errota elkarteetan, Kultur Etxeko sotoan, Udaltzaingoa, Merkatu Plazako sotoan, Mezkitan, Santa Ana, Arrillaga, Errosario, San Frantzisko eta San Pedro kaleetako hainbat garajetan eta San Lazaro egoitzan. Alkateak esan du oraindik kalteen inbentario zehatza osatzen ari direla, eta horiek guztiak tramitatzeko bideak jarriko dituztela. Bariku goiza "lanpetua" izan zutela azaldu du, bereziki brigadako langileek eta udaltzainek: "Herritarrek motobonbak eskatu zituzten eta zerbitzua eman ahal izateko bi motobonba gehiago erosi genituen. Eskaera asko izan genituen, eta udaltzainek kudeatu zuten hori". San La-

zaro egoitzara, bestalde, suhiltzaileak etorri ziren sotoaren eta igogailuaren guneetatik ura ateratzera. Ane Beitia udaltzainen lana nabarmendu du, izan ere, ostegun arratsaldean herrian zehar bandoa zabaldu zuten ibaiaren handitzeaz ohartaraziz, eta ibai ondoko garajeetatik jendeak autoak ateratzeko gomendioa eman zuten. "Zorionez kalte materialak bakarrik eragin ditu uholdeak", esan du alkateak.

Kalte material horiek bereziki handiak izan dira Altzolan, eta Alzola Basque Water enpresa izan da auzoan kaltetuenerarikoa. Patxi Casal zuzendariak kontatu digu nola bizi izan zuten hau guztia: "Azaroaren 30ean gertu izan genuen ura, baina ez zen irten zumardira eta libratu ginela pentsatu genuen. Joan zen astean ohartarazi zuten uholde arriskuaz, baina gu lasai joan ginen etxera, oraindik tarte handia ikusten genuelako, baina goizeko 4:30ean alarmak jo zuen". Goizeko 9:30ak alderako sei bat metro egin zuen gora urak, eta lantegia urak hartu zuen. "Beheko eta lehen solairua hartu zituen urak, eta gutxigatik ez zen bigarren pisura sartu". Kalte material handiak izan dituzte: "Terrazan gas deposito bat geneukan, segurtasun zutabeei lotuta, eta hamar bat metro mugitu da. Ia 800 mila euro balio dituen makina bat erabat hondatu zaigu eta ez dut uste berreskuratzerik izango dugunik. Beste bi makina ere hartu ditu urak, baina horiek agian konpontzeko moduan egongo gara". Barikutik garbiketa lanetan ari dira, eta Casalek uste du hamabost bat egun gutxienez beharko dituztela berriz lanean hasteko. Ur iturrian ere katak egingo dituzte kalitatea eskastu den ikusteko, baina alde horretatik uste du ez dutela arazorik izango, presio propioa duen iturria delako. Casalek zentral elektrikoaren jarrera kritikatu du: "Hiru zentral elektriko daude ibaian gora, eta horiek beraien etekin handiena lortzen dute ur emaria %90-95 inguruan dagoenean. Orduan irekitzen dituzte presak. Nik uste dut aurretik irekita ura ez litzatekeela kolpera hainbeste igoko, baina legea dagoen moduan egonda, aukera dute hori egiteko. Elektrizitatea garestitzen digute, eta gainera, beraien jokabideak eragiten dituen kalteak ere geuk ordaintzen ditugu. Ez da justua baina legeak baimentzen die hori egitea".



Mendaro



Altzola



Elgoibar



Elgoibar



Elgoibar



Elgoibar



Altzola



Altzola



Altzola



Altzola





● **URTARRILA:** Basoak lehengoratzeko ahaleginean, hemen bertako 400 bat arbola-landara landatu zituzten Zirardamendin, Lurgai fundazioak egindako deialdira batu ziren herritarrek.



● **URTARRILA:** Angel Fernandez de Jauregi Elgoibarko alkate izandakoa hil zen, 88 urte zituela. 1977tik 1979ra izan zen herriko alkate.



● **URTARRILA:** San Lazaro egoitzakoak izan ziren Elgoibarren koronabirusaren kontrako txertoa hartzen lehenengoak. Pfizer markako txertoa jarri zieten. 2020ko abenduaren 30ean hartu zuten egoiliarrek lehenengo dosia, eta urtarrilaren 1ean langileek. San Lazaro egoitzaren aurrean estalpe bat ere jarri zuen Udalak, egoitzakoek kanpora irteteko aukera izan zezaten.

Osasun
gida

 **aldaz**
hortz klinikak

RPS233/13

Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Torbio Eteebania, 22
Eibar
677 551 850



fisio&más

Fisioterapia aurreratu eta
Kirol Borregokitzea



Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 963 625
www.fisio-mas.com

RPS 87018

RPS 271/12
 **ainhoa**
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

RPS 183/12
Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192

Jeku
eder
hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734



● **URTARRILA:** Gautenari, Autismoaren Espektroko Nahastea duten pertsonen senideen elkarteari, laga zion Elgoibarko Udalak Santa Klara komentuko zati bat. Eguneko zentrorako, helduen atsedenaldirako eta aisialdi jardueretarako erabiltzen du Gautenak.



● **URTARRILA:** Sabin Osoro hil zen, enpresa, kultura eta gizarte alorreko hamaika ekimenen sortzaile eta sustatzailea izandakoa, tartean Elgoibarko Izarra kultur elkartearena. Felix Etxeberria *Parapan* eta Jesus Larrañaga *Plaentxi* izan zituen lagun Elgoibarko Izarra sortzeko. 2014an, *Gure Baloioak* saria eman zioten.

● **URTARRILA:** Azken urteetako elurterik handienarekin hasi genuen 2021. urtea eta herritarrek ez zuten elurraz gozatzeko aukerarik galdu. Aspaldian ez bezala zuritu zituen elurrak gure bazterrak eta irudi ikusgarriak utzi zituen.





● **URTARRILA:** Julen Zabaletari (Elgoibar, 1921) eta Koldo Lizarralderi (Pasai Donibane 1950 – Elgoibar 2019) eskaini zieten San Anton jaietako zigilu erakusketa. Zabaletak 7.000 marrazki baino gehiago egin ditu lumaz, Euskal Herriko hainbat lekutako ondare historikoa jasoz. Lizarraldek, berriz, historia eta antropologia zalea izanik, Elgoibarri buruzko hainbat liburu idatzi zituen, eta Elgoibarko DYA eta Gurutze Gorriaren ardura ere hartu zuen. Parrokiako Abesbatzako eta Kale Kantariak taldeko kidea ere bazen, eta Gure Bide Elkarteko Etxaniz Memorialaren antolakuntzan ere jardun zen.



● **URTARRILA:** Pantaila akustikoak jartzen hasi ziren Elgoibarren, AP-8 autobidean, 66,4 eta 67,3 kilometroen artean. Panelek 2,5 metroko altuera dute. Obrek 1.550.180 euroko aurrekontua izango zutela zabaldu zuten.



● **URTARRILA:** San Joseren irudi berria egin zuten Arturo Andrade eskulturgileak Morkaikorako eta urtarrilaren 20an jarri zuten bere lekuan, aurrez zegoena lapurtu egin zutelako.



● **URTARRILA:** *El Rioja y los 5 sentidos* nazioarteko argazki lehiaketa irabazi zuen Eduardo Arrillagak, Haroko Ardoaren Jaian egindako argazkiarekin. 2019an egin zuten argazkia eta *Cascadas de Haro* jarri zion izena. 358 argazkilarik parte hartu zuten lehiaketa berean.

● **OTSAILA:** *Satorra eta gu* diskoa kaleratu zuten Edu Iriondok (Elgoibar, 1954), bere bigarren lana.



● **OTSAILA:** Ospitaletik behera zetorren auto bat trenbidera jausi zen Mendaron, eta hainbat metroko erorikoaren ondoren buruz behera gelditu zen autoa. Zaurituak euren kabuz irten ziren autotik, eta hainbat lekukoren laguntzaz lortu zuten tren ga-raiz gelditzea.



● **OTSAILA:** Sei hilabete eta erdian 500 milioi kilometroko bidea egin ostean, otsailaren 18an ailegatu zen Martera Perseverance, NASAk, Estatu Batuetako Espazio Agentziak, Martera inoiz bidali duen ibilgailu sofistikatuena. Perseverancen tresnetako batzuk Elgoibarko AVS (Added Value Solutions) enpresan egin zituzten



● **MARTXOA:** Hamalau ordu eta 50 minutuan gauzatu zuen Juanan Martinek mendiko zazpi maratoi erdi astebetean egiteko erronka.



● **MARTXOA:** Espainiako Bikejoring txapelketa irabazi zuen Dani Arenasek (Elgoibar, 1976), Sorrian. 2019an Munduko Txapelketa irabazi zuen.

Fon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneratik ostiralarerako: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 11:00 - 13:00

Inoiz ere inoiz ezin diren zerbitzuak.
Demu ordua hartzeko.

PINTURA ETA DEKORAZIOA

CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62



● **MARTXOA:** Lurpeko ur-sare bat topatu zuten Leizarpe-Morkaiko espeleologia taldekoek Mendaroko Aizkoltxo muinoan, 634 erre-pidearen eta Deba ibaiaren artean. Kareharrizko tontorra da, Arnoko karstaren mugarri naturala. Muino berean, Aizkoltxo kobazuloan, Goi-Madeleine aldeko lau zulodun makila bat topatu zuten arkeologoek, 16.500-13.000 urtekoa.



● **APIRILA:** Apirilaren 8an hil zen Fermin Arrese Arizmendiarrera, 91 urte zituela. 1948an hasi zen Mugertza Krosaren antolakuntza taldean, eta 63 urte egin zituen krosaren antolakuntzan, harik eta Ego-Tokik hartu zuen arte ardura hori.

● **APIRILA:** Bike360 Pro Cycling Club izeneko txirrindularientzako goi errendimendurako zentroa zabaldu zuen Elgoibarren Mikel Landak, Aitor Galdos eta beste bi bazkideren batera. Egitasmoak hiru ardatz nagusi ditu: Txirrindularitza kluba, txirrinduzaleentzako zerbitzu integrala eta denda.



● **APIRILA:** Lesboseko (Grezia) kanpalekuko errefuxiatuei otorduak eman ahal izateko janari gilketa egin zuten, Zaporeak elkarteak sustatuta. 2.000 kilotik gora garbanzu bildu zituzten Elgoibarren.



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.



● **APIRILA:** Oier Etxaniz Elgoibarko Udal Musika Bandako eta Mauxitxa txarangoko kide izandakoa omendu zuten lagunek Bolatokian. Aspanogin zebilen boluntario minbizidun hurrekin lanean, eta horregatik, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek ere gogoan izan zuten Herriko Antzokian egin zuten ikusizunean.

● **APIRILA:** Gajko Vucinic (Montenegro, 1970-2021) hil zen apirilaren 14an, azken hamar urteetan Sanlo kirol taldeko jokalaria, entrenatzaile eta harrobiaren arduraduna izan zena. Vucinic-ek hainbat urtez jokatu zuen Espainiako Asobal ligan, atezain postuan. 2001. urtean iritsi zen Eibarko Arrate taldera. Eibarko taldeko atezaina izan zen, harik eta arazo ekonomikoen ondorioz 2011n taldea desegin zuten arte. Orduan iritsi zen Elgoibarrera, Sanlora, Juanma Lopezen eskutik.





**ASESORIA
GOAR**

**KONTABILITATEA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASESORIA LABORALA**

San Bartolome, 2 behea - Elgoibar Tel: 943 742 674 / 943 740 234
asesoria@asesoriagoar.com Faxa: 943 742 129

Gabon zoriontsuak!



**Grabados
LASER 2D**

**Diseinu zerbitzua, grabatua
eta laser mozketa**

Enpresa zela partikularrentzako lanak.

**Material anitzak: egurra, kristala,
arbel arria, larrua...**

623 441 405



● **MAIATZA:** Urazandiko igogailuak zabaldu zituzten maiatzaren 6an. Eskailera mekanikoak kendu eta bi igogailu publiko jarri zituen Udalak haien ordez. Lehen igogailuak 14 metroko altuera du, eta bigarrenak 8,35ekoa. Igogailuak 24 orduz daude erabilgarri, urteko 365 egunetan. Udalak 423.066,05 euroko inbertsioa egin du,

● **MAIATZA:** Eibarbus enpresak hartu zuen herri barruko autobusaren ku-deaketa. Urte osoan zehar egongo da zerbitzua martxan, astelehenetik zapa- tu eguerdira. Igande eta jai egunetan ez da zerbitzurik egongo eta abuztuan goizez bakarrik. Zerbitzuaren gaineko hainbat erabakik eztabaida sortu zuten alderdi politikoen artean.



● **MAIATZA:** 37 urtez Udaleko idazkari izan zen Lourdes Etxeberriak erretiroa hartu zuen maiatzean, eta Udalbatzak omenaldia egin zion, hainbeste urteetan egindako lana aitortuz. Irati Labaka Garmendia beizamarrak bete du bere lekua Mendaroko Udalean.



● **MAIATZA:** Audience talde bizkaitarrak disko berria prestatu zuen, eta Mendaroko Joseba Olazabal autopistako biolin joleak hasitako borrokari eskaini zion kanta bat. *Mendaro Fiddler* izena jarri zioten eta bideoklipa ere grabatu zuten



Mila esker zuen konfiantzagatik!

Catotex izarak %100 kotoidunak edota koralinadunak!

Hotzari aurre egiteko modurik onena!

Gabon zorionsuak!




San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



● **MAIATZA:** EHBilduren II. Kongresuan EH Bilduren Mahai Politikoak Arnaldo Otegi aukeratu zuen zerrendaburu. %88,49k aldeko botoa eman zuten eta %6,65ek kontrakoa. 2017tik da Otegi EH Bilduko koordinatzaile nagusia



● **MAIATZA:** Gorane Ayestak (Elgoibar, 1995) Errugbiko Euskal Liga irabazi zuen Bera Bera taldearekin, eta Ohorezko B mailara igotzeko fasea jokatu zuen. Ez zuten mailaz igotzea lortu.



● **MAIATZA:** Etxe batek su hartu zuen maiatzaren 17an Errosario kaleko 6. zenbakian, 2018an su hartu zuen etxebizitzaren ondoan, hain zuzen ere. Hutsik zegoen eraikina eta ez zen ezbehar pertsonalik gertatu.



● **MAIATZA:** Joserra Ezenarro, 2018tik Elgoibarko Nagusilan boluntario sareko arduraduna, Nagusilango Gipuzkoako presidente izendatu zuten. Nagusilan irabazi asmorik gabeko elkarte da, boluntarioz osatutakoa eta bakardade egoeran dauden edadeko pertsonen laguntzen diena. Gaur egun, 1.150 boluntariok osatzen dute elkarte eta 8.500 bat laguni laguntzen diete.



● **MAIATZA:** Carmelo Urdangarin hil zen maiatzean, 89 urte zituela, ekonomilaria, idazlea eta antzinako ofizio eta lanabesak jasotzen urteak eman zituen kultur gizona. Debarra zen jaiotzez, baina Debabarrenean arrasto handia utzitakoa. Zuzendaritza-karguak bete zituen hainbat enpresatan, hala nola, Orbean, Euskadiko Kutxan (enpresa-barrutia) eta Danobaten. Kutxa eta Lagun Aro entitateetako zuzendaritza-organoetako kidea ere izan zen, bai eta Euskal Meatzaritzaren Museoaren Fundazioaren patronoa ere.

● **MAIATZA:** 2019ko abenduaren 12an zabaldu zuten Kultur Kafea, eta 2021eko maiatzaren 21ean itxi egin zuten. Udalak berriz atera zuten tabernaren kudeaketa lehiaketara, eta abuztuan zabaldu zuten Kultur Kafea Joseba Quintasek.



● **MAIATZA:** Katamixarren basoa proiektua aurkeztu zuten Elgoibarko Izarrak eta Txillarre baserriak elkarlanean, umeak naturan hazteko eta hezteko asmoz. Irailean jarri zuten martxan. HH3tik LH6ra arteko umeentzako sortutako egitasmo honetan baserri mundua ezagutzen dute umeek, eta ortuan lan egiteko edota etxe-abereak zaintzeko aukera ere badute.

Eguberri on! Covid gabeko garaia

Berriz itzuliko balitz Covid gabeko garaia, denok eukiko genuke jendez betetako mahaia. Iazko urtea balitz bizitzaren ikasgaia ez ginake elkartuko ospatzeko gaurko jaia.

Esperantza badaukagu irabazteko bataila. Denok batera ospatu ama, aita eta anaia, kantu berriak kantatuz aurrera doa bidaiak gure kasuan hori da ta bizipozan osagaia.

Doinua: Habanera
Egilea: Maddi Arrieta Arrizabalaga

2022 ELGOIBAR BHI



● **EKAINA:** 20 urteko kartzela zigorra ezarri zioten 2019an Pablo Acuña hil eta haren neska-laguna larri zauritu zuen gizonari. 16 urteko kartzela zigorra ezarri zioten "azpikeria erabiltzeagatik" eta beste lau urtekoa "tresna arriskutsuz eta azpikeriaz" lesioak eragiteagatik.



● **EKAINA:** Jone Arriola elgoibartarrak zuzendutako *Larrugorritan* telesaila aurkeztu zuten Herriko Antzokian. Gazteentzako telesaila da, emakumeen ikuspegitik sortua, eta emakumeak diren bezala islatzen ditu, estereotipoak apurtuz. Sexua, drogak, parranda eta egungo gazteen arazoak islatzen ditu serieak.

● **EKAINA:** Bera Bera eskubaloia taldeak June Loidi elgoibartarra fitxatu zuen, eta bera izan zen Guerreras Iberdrola Ligako talde txapeldunaren lehenengo fitxaketa hurrengo denboraldirako. Jokalari elgoibartarrak Zuazo talde bizkaitarrean egin zituen azken hiru denboraldiak, Sanlok utzita.



● **EKAINA:** Telmo Fernandezek *Cada sitio* izeneko poema liburua argitaratu zuen. Umetatik izan du idazteko zaletasuna, eta urteetan idatzitako poemak bildu ditu liburuan. Argazki album bat bezala definitu zuen liburua, poema bakoitzak egoera eta leku jakin batera eramaten duelako.

Softlan S.L.

Albitxuri industriagunea, 3i
20870 Elgoibar - Gipuzkoa
943 748 105

www.softlan.biz - www.softlan.eus
info@softlan.biz

*Jai zoriontsuak
eta 2022 urte emankorra!*

Enpresetarako Software-an espezializatuak



Behar dituzun programak,
gertuko zerbitzuarekin.

TicketBai-rako prestatuak.

www.softlan.biz - www.softlan.eus



● **EKAINA:** Paco Egea (Elgoibar, 1950-2021) PSE-EEko sailburu izandakoa hil zen ekainaren 11n, 70 urte zituela. 1997an Jaur-laritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza kontseilari izendatu zuten, EAJ-PSE gobernuan; 1998an utzi egin zuen, PSE Jaur-laritzatik irtetea. 1999az geroztik, Txillarrek elkarriketa politikoak sustatu zituen, Arnaldo Otegi, Jesus Egiguren eta Fernando Barrenarekin.



● **EKAINA:** Joseba Etxeberriak Bilbao Athletic taldeko entrenatzaile izateari utzi zion. Hiru denboralditarako kontratua zeukan arren, bi denboraldi bete zituen. Athletic-ek eskerrak eman zizkion harrobiko jokalariekin egin zuen lanagatik.



● **EKAINA:** Enrike Eguren Diaz musikaria hil zen ekainaren 4an, 94 urte zituela. Orkestinako musikaria izan zen eta 80 bat urtean ibili zen Elgoibarko auzoak eta inguruko herriak musikaz alaitzen, Pedro Sodupe 'Gelatxo' soinu-jotzaile ezagunarekin. Gelatxo gaixotu eta plazak laga zituen urtean Eguren orkestra sortu zuen Jose Perez Cortes batera jotzailearekin.

Revert Eibarbus
grupoJonAnder
www.grupojonander.com

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

jonander@jonander.com - eibarbus@eibarbus.com

943 201 733

AHOLKULARITZA

BIKAIN

ASESORIA

Tel.: 943 744 557
Faxa: 943 740 408
e-posta: bikain@bikainasesoria.com

Gabon zoriontsuak!!

- Ⓞ Zerga-aholkularitza
- Ⓞ Lan-aholkularitza
- Ⓞ Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 ELGOIBAR



● **EKAINA:** Ushba mendia (4.710m) igo zuen Alberto Fernandezek, Mikel Zabalza nafarrak gidatutako Espainiako Alpinismo Taldearekin. Errusia eta Georgia arteko mugan dagoen Svantetiko eskualdean dago Ushba, eta bi tontor ditu, iparraldekoa eta hegoaldekoa.



● **EKAINA:** Gazte Mailako Aurreku Txapelketa irabazi zuen Eneko Etxaniz dantzari elgoibartarrak. Apirilean, bestalde, Elgoibarko Aurreku Txapelketa irabazi zuen bere mailan, eta azaroan txapelkunorde izan zen Euskal Herriko Aurreku Txapelketa Nagusian.



● **EKAINA:** Grindel enpresak 50 urte bete zituen, eta urteurrenaren harira, agintarien bisita jaso zuten enpresan. Makina-erremintako sektorean diharduen enpresa da Grindel, eta engranaje zilindrikoak eta doitasun handiko ardatz ildaskatuak fabrikatzen espezializatuta dago.

AUTOMATIZAZIO INDUSTRIALERAKO OSAGAIAK ETA SISTEMAK

PNEUMAX

Gabon zoriontsuak herritar guztioi!

- Aplikazio osorako balioa
- 40 urtetik gora "automatizazio adimendunean"
- Ingeniaritza aplikatua
- Neurria egindako soluzioak
- Panelak
- Aurremuntatutako sistemak

PNEUMAX, S.A., Olaso Kalea 15, 52-53-54 eraikuntzak, 20870 Elgoibar (GIPUZKOA) Tel: 943 74 41 44 - 74, E-mail: pneumax@pneumax.es, web: pneumax.es



● **EKAINA:** Jose Miguel Azkoitia saria sortu zuten Basque Health Cluster erakundeak, Elgoibarko enpresa-gizonaren omenez. 2018ko otsailaren 6an hil zen Jose Miguel Azkoitia enpresa-gizon elgoibartarra 57 urte zituela, eta hil aurreko urteetan bio osasunaren sektorea aktibatzen lanean jardun zen, batez ere. Lan hori aitortzeko jarri zioten bere izena sariari.

● **UZTAILA:** Iker Odriak irabazi zuen Antxon De La Arada La Roita kuadrillako lagunarekin egindako apustua. Mutrikun igerian 600 metro egin zituzten, eta ondoren, Kalbario gainetik Kalegoen plazarainoko bidea egin zuten bizikletaz, azkenik Karakatera igotzeko. Odria iritsi zen lehena, 1:24:50eko denborarekin, eta 3,5 minutura De La Arada.




● **UZTAILA:** Ia 80 urtez Iriondo taberna egon zen eraikina bota zuten, etxeak egiteko. Maria Ostolaza eta Remigio Iriondo senar-emazteek zabaldu zuten taberna 1942an, eta 2021era arte hainbat elgoibartarren bilgune izan da. Julen Agirre eta Elena Chinchilla izan ziren azken ugazabak.


● **UZTAILA:** Uxue Ansozregi aizkolari mendarorarik eta Karmele Gisasola Zelai III.-ak osatutako bikoteak irabazi zuten Binakako Aizkolari Txapelketaren estreinako edizioa. Hiru bikotek hartu zuten parte, eta Ansozregi eta Zelai III.a izan ziren azkarrenak. Azaroan, bestalde, bigarren egin zuten Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusian, eta Bizkaiko Trontza Misto Txapelketa ere irabazi zuten Mikel Arregirekin batera.



25.
urteurrena

 **SURYA**
BELAR-DENDA

☎ 943 742 534 📞 630 878 054

 surya-belardenda@hotmail.com 
San Frantzisko, 23 - Elgoibar

ZA
ZURE ALDE S.L.

Nerea Olea Lequerica
Abokatua

Zibil-Jabetza horizontala
Komunitateen kudeaketa

Jausoro plaza, 3 - beheka
Elgoibar
943 531 351 / 685 708 606

zurealde.elgoibar@gmail.com



● **UZTAILA:** Foru Aldundiko agintariek esan zuten 2022ko urte amaieran hasiko direla Pilarreko zaharren egoitza eraikitzen. Bestek beste, 130 bat egoiliarrentzako lekua izango du, eguneko zentroa, eta eraikinaren azpian 150 autorentzako aparkalekua.



● **UZTAILA:** Covid-19ak baldintzatuta ospatu zituzten Mendaroko Santa Ana jaiak. Bertsu saioak, musika emanaldiak, txirrista erraldoia, dantzaldiak eta pilota izan ziren besteak beste jaietan.



● **UZTAILA:** Repsol gidako *Soletes* kategorian sartu zuten Viento Sur taberna. Repsol gidak eguzkiak banatzen ditu ostalaritza establezimenduen kalitatea zehazteko, eta aurten *Soletes* atala sortu dute, tamaina txikikoentzat. Gipuzkoako 50 establezimendu sartu zituzten kategorian horretan, tartean, Elgoibarko Viento Sur gastroteka.



● **UZTAILA:** Maite Maiorak Munduko Txapelketa irabazi zuen, bigarrenengoz. 2016an mendi maratoikoa irabazi ostean, aurten ultratrail distantziakoa irabazi du, Lleidan jokaturako lasterketan. Urrian, Hiru Handiak proba irabazi zuen emakumezkoetan, eta errekorra ezarri zuen 12 ordu eta 9 minutuko ddenborarekin.

BM Termoplastiko eta Konposiuteen
Mekanizazio lanak
Metal Ez-Ferrikoak
bronymec

@bronymecSA

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



● **UZTAILA:** Elgoibarko 36 taberna eta jatetxek Aizu! Elkartea sortu zuten, beraien eskerak elkarrekin denfendatzeko. Covid-19ak ostalaritzan eragin dituen kalteei elkarlanean eta batasunez aurre egitea da elkartearen helburu nagusia. King Kong tabernako Manu Rey da elkarteko lehendakaria.

● **UZTAILA:** Arrauneko gorengo kategorian egin zuen debuta Ainhoa Larrañaga mendarorarrak Donostiarra Lacturale traineruarekin, Galizian jokaturako Bandeira Cidade da Coruña estropadan.



● **ABUZTUA:** Etxariz Memoriala berrikuntzekin itzuli zen abuztuan: Idorben izan zuen helmuga. Antolatzaileek Gure Bide elkarteko bazkide eta lasterketaren antolatzaile izandako Koldo Lizarrale omendu zuten kirol proban.



MAQUINAS ESPECIALES





IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.



Albitxuri, 1 · 3. Pabilioia, K-L
Tel.: 943 744 466 · Faxe: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net · www.ihardun.net

MAKINA BEREZIAK



● **ABUZZTUA:** - Covid-19aren eraginez, bertan behera geratu ziren bigarren urtez sanbartolomeak, baina horren ordez *Kultura Eguzkitan* programa antolatu zuen Udalak eta hilabete osoan zehar egin zituzten kultur ikuskizunak.



● **ABUZZTUA:** Abel Iriondo dantzaria hil zen abuztuaren 29an 55 urte zituela, bizikletan zebilela bihotzekoak emanda. Haritz Euskal Dantzari taldean ezezik Argia, Kezka, Kriskitin eta Aiko dantza taldeetan ere jardun zen. San Bartolome Eguneko sokadantzan irudi garrantzitsua izan zen eta Errosarioko Amaren ezpata-dantzan ere kapitain jardundakoa zen besteak beste.



● **IRAILA:** Arregitorre kaleko zazpi zabor edukiontzi erre zituzten irailaren 6tik 7rako gauean eta suak kalte esanguratsuak eragin zituen inguruan aparkatutako autoetan eta aurreko etxebizitzetan. Aurten hiru aldiz erre dituzte edukiontziak gune honetan, baina azken honetan aurrekoetan baino handiagoak izan ziren kalteak.

BOSCH WTR85V91ES ARROPA - LEHORGAILUA

8 Kg karga
Bero-ponpa
A++

549 €



**Zorionak
eta
urte berri on!**



● **IRAILA:** Igerileku berria estreinatu zuten igerilariek irailaren hasieran Olaizaga kiroldegian. Zortzi kale ditu 25 metro luze eta 16,5 metro zabal den igerilekuak. Eraikina bera ere berritu dute, aldagelak eta botikina, hain zuzen ere; eta apartakalekuan ere egin dituzte hobekuntza lanak. Balioanitzeko gela bat ere egin dute igerilekuaren goiko aldean.

● **IRAILA:** Elgoibarko Memoriaren Ibilbidea aurkeztu zuten irailaren 19an Aiastian Gogora Institutuak eta Elgoibarko Udalak. Altzolatik Kalamuara arteko ibilbidearen zatia izan zen aurkeztutakoa, hain zuzen ere, Aiastiatik Zirardamendira artekoa. Frontoiaren atzeko aldean 36ko gerran tropa matxinoen kontra borrokatu ziren gudari eta milizianoen omenez landatutako arbola ondoan hasten da ibilbidea.



● **IRAILA:** Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioa eratu zuten irailaren 29an. Euskaltzaleen Topagunean biltzen diren eta aisialdia lantzen duten euskara elkarten hausnarketaren emaitza da Kukulaisi. 14 elkarte batu dira eta Elgoibarko Atxutxiamaikakoak ere tartean dira. Kukulaisik aisialdi sektorea indartu eta talderik ez dagoen herrietan sortzen lagunduko du, aisia euskalduna eta euskaltzalea hedatzea baita federazioaren egiteko nagusia.

Gabon zoriontsuak!

NAVA
INPRIMATEGIA
Santa Ana, 44 - 208
Telf. eta Faxe: 943 744 451
E-mail: nava@euskalnet.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

HAIR'S
ILEA PAINDEGIA
San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 53 12 79

ASTEARTEETAN
JUBILATUEN
EGUNA:
- Orraztu 10€
- Garbitu, moztu eta
orraztu 20€

Abenduaren 24an eta 31n
goizez zabalik!



● **IRAILA:** Mausitxako gaztak irabazi zuen Bergarako San Martin azokako gazta lehiaketako lehen saria. Horrez gain, Debako Soro Ferian jokatzekoa zen lehiaketa atzeratu egin zuten pandemiaren ondorioz eta abuztuan jokatu zutenean, Mausitxak irabazi zuen.

● **IRAILA:** Heriotzari buruzko *Hili* liburua aurkeztu zuen Uxue Alberdik. Liburua sortzerakoan umeekin pentsatu duten arren, edukia ez da haurrentzat bakarrik, heriotzaren inguruko galdera-erantzunak bizitza osoan barrena izaten ditugulako.



● **IRAILA:** Lila, Elgoibarko emakumeen etxea, zabaldu zuten irailaren 15ean San Frantzisko kalean, Udal liburutegia egon zen gunean. 150 metro koadroko gunea hau topaketetarako, eztaba-detarako, gogoetarako... erabiliko dute herriko emakumeek, baita emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borroka egiteko. Eskola feministaren erreferentziazko espazio bihurtu nahi dute harremanak, sareak eta lankidetzak sustatzeko.



● **URRIA:** *Euskara ala ez* jardunaldia izan zen Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatuta urriaren 16an IMHn. *Euskara ala ez* ertzetan? *Euskaldun identitateak XXI. Mendean* gaiari heldu diote aurtengoan.



● **URRIA:** Jasone Osorok bi sari irabazi zituen Juul kanpainan. Euskal Herriko ikastoletako ikasleek gogokoan dituzten liburuak aukeratzen dituzte kanpaina honetan eta horien artean daude Jasone Osororen *Madiren amona influencerra*, Golazen bildumakoa, eta *Eskularru beltzak*. Sari honekin irakurle gazteen errekozimendua jaso du.



● **URRIA:** Jon Peli Uriguenek EH Bilduko zinegotzi eta bozeramaile karguak laga zituen hamalau urte Elgoibarko Udalean eman ondoren. 2007an sartu zen Elgoibarko udalbatzan, Eusko Alkartasuna alderdiko zinegotzi modura eta bera izan da EH Bilduko alkategaia azkenengo udal hauteskundeetan ere. 2011tik 2015era bitartean Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Diputatu ere izan zen Gipuzkoako Foru Aldundian, eta gaur egun ere batzarkidea da Gipuzkoako Batzar Nagusietako EH Bilduren taldean. Aitziber Aranberrik ordezkatu du Jon Peli Uriguen EH Bilduko bozeramaile lanetan.



● **URRIA:** Angel Mugica txirrindulari ohia hil zen urriaren 8an. Gure Bide txirrindulari elkartearen sorreran hartu zuen parte. Taldearekin lehiatu zen lehen urtean 52 lasterketatan hartu zuen parte eta Elgoibarko lehen lasterketan herriko lehen sailkatua izateaz gain, Orioko lasterketan hirugarren izan zen, eta bigarren Getarian. Denboraldi amaieran, Touring Caoba taldeak fitxatu zuenean, laga zuen herriko taldea.



● **URRIA:** Maialen Sanchez elgoibartarrak *El jueves a las cinco* estreinako liburua kaleratu zuen. Liburuan fikziozko istorio bat uztartu du bere benetako bizitzarekin. Zaharren egoitza bateko erizain laguntzailea da bera eta Ospitaleko harreran lan egiten duen neska da liburuko protagonista. Mezua dauka amaieran, eta gogetarako balio du.

G R E M I O N E N GIDA

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

ELEKTRIZATEA

egoluz

ELEKTRIZATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462

Pedro Migel Uruzuno, 14 behea
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

Ermosano kalea, 15 behea - Elgoibar

- ⊕ Proiektuak eta erreformak
- ⊕ Sukaldeak
- ⊕ Gremioen koordinazioa
- ⊕ Obren zerbitzu integrala

**943 744 019
605 713 168**

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK

**LODOSO
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90



ARROZTEGIAK

Ulazia

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industrialdea, 1-O/ 1-P
943 740 547



MAR
ARROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



iraolagoitia

arroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

Aroztegia Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

BIENA S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



ITURGINTZA

ongi iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

SANTANA



Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905

santanaiturgintza@gmail.com

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA

San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279

tailer@pagoagasa.com

ELGOIBAR

MIGUEL AZPIRI
iturgina

Iturgintzako eta berokuntzako
ordezkapenen konponketak.

635 133 841

**Berehalako zerbitzua
ematen da!**





● **URRIA:** Madeira Sky Race lasterketa irabazi zuen Mayi Mujikak Portugalen urriaren 9an. 55 kilometroko ibilbide gorabeheratsuan 4.121 metroko desnibel positiboa gainditzeaz gain, amildegi ertzetan, basoan eta itsasertzean ibili ziren korrikalariak. Euskal selekzioa ordezkatzuz, 7 ordu, 16 minutu eta 13 segundoko denboran egin zuen lasterketa.



● **URRIA:** Everest mendiaren hegoaldean dagoen Mera Peak mendia (6.476 m.) igo zuen urrian Ainhoa Lendinezek, bost emakumez osatutako espedizioan. Esperientzia polita bezain gogorra izan zen sekula egin duen mendirik altuenera iristea. Eguraldiak eta altuerak eragin handia izan zuten eta buelta ematea pentsatu zuen arren, piskanaka iritsi zen gailurrera.




● **URRIA:** Maite Maiora izena jarri zion Mendaroko Udalak Andoneikuako parkeari. Iñaki Arregi alkatearen esker on hitzen ostean, Jon Larrañaga eta Olatz Urbieta dantzariak agurra dantzatu zioten Maiorari, eta ondoren, lore-sorta eman zioten Mari Jose Telleria PSE-EEko zinegotziak eta Dorleta Lazarobaster EHBildukoak. Era berean, Angel Mari Iriondo EAJko zinegotzi eta Hirigintza Saileko arduradunak oroigarri bat eman zion: Aitor Etxeberria eskulturagile mendaroarraren *Bi begirada* obraren miniatutzako erreplika.

● **URRIA:** *Andanzas de un flautista llamado Tristrás* eleberria argitaratu zuen Iban Barreneixea idazle eta ilustratzaileak. Nordica infantil argitaletxearekin argitaratu zuen lana abentura liburu bat da, fantasiazkoa. Barreneixek berak ilustratutako hogeitaka liburu ditu eta zazpi lan dauzka berak idatzi eta ilustratuak: lau ipuin-liburu eta hiru eleberri.





● **AZAROA:** Elgoibarko HRE Hidraulic enpresak irabazi zuen 'On Ekin' enpresa ideia eta proiektu lehiaketa MANEX 4.0 ideiarekin. Bezero industrialei euren orizesuak kontrolatzen lagundu nahi diete egitasmo horrekin, makinaren fidagarritasuna eta erabilgarritasuna ziurtatuz. Lehiaketaren helburua da enpresen eta ekintzaileen ekimenak sustatzea eta gure ingurunearentzako enplegu gehiago eta aberastasun handiagoa sortzea.



● **AZAROA:** Koldo Aranburu euskal militante komunista hil zen urriaren 20an. Ekintza ugariaren antolatzaile eta parte hartzaile izanik, omenaldia jaso zuen hainbat herritarren partetik. Bere militantzia politikoa eta sindikala azpimarratu zituzten ekitaldian, izan ere, herriko arazoez jarduteko eta ahal zen neurrian konpontzeko ahalegina egiten zuten, besteak beste: pentsionistak, emakumeak, langabetuak, etorkinak...



● **AZAROA:** Aitziber Olaizolak irabazi zuen Euskal Herriko Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketa. Lau jardunalditan jokatu zuten aurtengo txapelketa 73 bolarik. San Migel taldeko Aitziber Olaizola elgoibartarra gailendu zen lau jardunaldietan 21 txirlo botata eta bikotekakoan ere irabazi zuen Angel Ibarluzearekin batera. Historian estreinako irabazi du txapelketa emakume batek.



● **AZAROA:** Euskadiko Judo txapelketan urrezko domina bana jaso zituzten Elgoibarko judoek. Egoitz Mora 100 kilotik gorakoen kategorian izan zen txapelketa, 2000. urtetik hona hamazortzigarren aldiz. David Mendazona, berriz, txapelketa honetan lehen aldiz izan da irabazle, 60 kiloz azpikoaren kategorian.

● **AZAROA:** Julia Larrañaga omendu du Mendaroko Udalak 100 urte bete dituela-eta. Azaroaren 1ean lore sorta oparitu zioten eta Iñaki Arregi alkateak zorion mezua eta besarkada estua helarazi zizkion herritarren izenean. Agarre-Txiki baxerria jaio eta Sahatzu-azpiko baxerria ezkondua, hiru seme-alaba izan zituen Pedro Aranberriekin.





● **AZAROA:** Gizonezko Euskal Herriko Lokotx Bilketa Txapelketan irabazle izan zen Jon Larrañaga mendararra Laukizen, azaroaren 13an. Sei kirolari aritu ziren eta Asier Gamio nafarrari segundo bakarreko aldea aterata izan zen txapelkun. Larrañagak 6 minutu eta 27 segundo behar izan zituen 50 lokotx batzeko.



● **ABENDUA:** Euskal Herriko Aizkolari Txapelketa nagusia irabazi du Hodei Ezpeleta aizkolari mendarorarik. Urrian, bestalde, Urrezko Aizkolari Txapelketa dunen Liga ere irabazi zuen.



● **ABENDUA:** *Haurren aurrean, helduok heldu* egitasmoaren amaiera ekitaldia egin zuten abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean. Gurasoek sei konpromiso hartu zituzten umeen aurrean, eta euskaraz ez ezik, gaztelaniaz eta arabieraz ere irakurri zituzten konpromisoak.



● **ABENDUA:** Elgoibarrek 675 urte bete zituen abenduaren 20an. Udalak, herriko historialariek eta hainbat elkarterekin batera, urte osoan zehar egin dituzten urteurrenari lotutako hainbat ekintza, eta abenduaren 20an eman zion amaiera urteurrenari txistularien eta dultzaineroen kalejirarekin, txalaparta jotzearekin eta Julen Zabaletaren 'Yulen 100 urte' liburuaren aurkezpenarekin.

● **AZAROA:** Eulali Morenok *Printzesa ausarta* ipuina argitaratu zuen. Orain dela bost urte hasi zen Eulali ipuin hau kontatzen, eta orain papelean argitaratu du. Berdintasunean eta hezkidetzan oinarritutako ipuina da.



● **ABENDUA:** 21 egun jarraian egin zuten euria, eta Deba ibaiaren ur-goraldiak kalteak eragin zituen Elgoibarren eta, bereziki, Mendaron. Abenduaren 9ko gauean ura bere bideetik irten zen, eta Mendaro inkomunikatuta geratu zen errepidetik. Altzolan ere kalte handiak eragin zituzten urak, eta Elgoibarko garaje eta lokal askotan ere sartu zen ura.



1.800€

**BANATUKO DITUGU
10 EROSKETA TXEKETAN**
(Zozketa 2022ko urtarrilaren 7an)

**GABONETAKO 6 OTAR
BANATUKO DITUGU**
(Zozketa abenduaren 22an)

*Merkatari txikien zale
herria eta herritarrak irabazle*



Debabarreneko Biolurkideak Itziariko Burugorin elkartu ziren bazkide berriei elkarterako gonbita eginez.

Biolur, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa elkarlanean

Gabon Zaharreko azoka bertan behera uztea erabaki du Udalak egoera epidemiologikoa dela-eta. Baserriko askotariko produktuak egoten dira azokan baina bada aukera beste hainbat lekutan erosteko ere. Erosteko eta baita ekoizteko ere. Biolur Gipuzkoa, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren aldeko elkartea da eta elkarteko hiru kideekin egon gara bere jardunaren berri jasotzeko.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

○ rain dela 28 urte baserriar talde txiki baten ekimenez sortu zen Biolur, Nekazaritza Ekologikoaren aldeko irabazi asmorik gabeko elkartea. Gaur egun produktu ekologikoak merkataritza gune handietara zabaldu dira eta erakundeak ere hori bultzatzen ari direla dirudi. Arrakasta badute bai, baina sortzen dituzte kezkak eta zalantzak ere, hainbeste urtetako lana, azoka txikietan zabaldu ohi zena, merkatu handietara bideratzeak eragina baitu ekoizle txikietan. Produktu ekologikoen jatorrizko izaera indartzea da, hain zuzen ere, Biolur Gipuzkoaren helburua “gaur egungo krisi ekologiko eta sozialean, senti ditzakegun diskurtso zabal eta urrunekoak gure lurralde eta herrietan nola eragiten duten aintzat hartzea ezinbestekoa zaigu, eragile zein norbanako bakoitzak ditugun erantzukizunetaz jabetu eta ekintzetara pasatuz”, diote Biolurrekoek.

“Gure ibilbidean bai elkartea eta bai eredu ekologikoa sendotzen joan dira eta etorkizuna ilusioz eta itxaropenez beteta ikusten dugu”.

Elikadura dute ardatz funtsezkoa eta Biolurrek, elikadura osasuntsua sortzetik eta nekazaritza iraunkorretik heltzen die erronka horiei modu kolektiboan erantzunez, eta horretarako lankidetzara eraitzen jarraitu nahi dute.

Txillarreko Argiñe Rubio eta Antxolako Lore Osoro (Abate-txen jaioa) Pello Rubioren bitartez sartu ziren Biolurren. “Barazkiak saltzen hasi zen Pello, baina ez zuen nahikoa eta ea nik saltzeko beste baneukan galdetu zidanean baiezkoa eman nion. Orduan barraskiloentzako pozoia jartzen nien barazkiei zurtoinetan, baina Pelloekin hasi nintzenezan utzi egin nion eta ordutik horrela nabil. Hala ere, egunsentian eta iluntzean ortura

“Biolurreko nekazariok elkarrekin harremanetan egon ohi gara eta taldeko teknikariaren jakituriak ere asko laguntzen digu”

joaten naiz barraskiloak akabatzera aitzur txikiarekin eta gutxitzen dira”, esan digu Lore Osorok.

“Nik ere etxean modu biologikoa ezagutu dut beti aitaren bitartez”, esan digu Argiñek. “Nekazaritzan orain hasten den jende gazteak ere modu ekologikoari eusten dio eta bidea irekia daukagu”.

TEKNIKARIEN LAGUNTZA

Hiru teknikari daude Biolurren, baserritarrek boluntario modura aritzen dira eta beste hainbat kide laguntzaile gisa. Debabarrenean guztira 30 bazkide daude, Elgoibarren lau baserritar eta herritarrek bost eta Mendaron herritar bat.

Teknikariek baserritarrei aholkularitza teknikoak eta formakuntza eskaintzen dizkiete eta gainontzeko baserritarrek ere ematen diete laguntza ekoizpenari lotutako arazoren bat izanez gero adibidez; teknikariek bisitak ere egiten dituzte baserrietara. “Ni bizi guztian baserrian jaio eta bizitakoa naiz eta han pestizidarik sekula ez nuen ezagutu. Artoa eta garia ondo hartzen ziren, oso lur ona zegoen, arazoa arbiarekin izaten zen, zanko hartzen baitzuen eta horri aurre egiteko kare bizia botatzen zitzaion. Biolurreko teknikariak ikusi zuen kare bizia jarrita neukala ortuaren bueltan barraskiloak ez sartzeko. Debekatuta zegoela esan zidan, ez zela ona lurrarentzat. Orain ez diot botatzen eta benetako barazkia jaten dugu, naturala. Batzuk preziatzen dute, beste baserritar batzuk, ordea, ez datoz bat guk ekoizteko dugun moduarekin, baina hori inbidia da”, dio Lorek.

Argiñeren ustez, ezjakintasuna ere bada, “unibertsiteatan ikasi eta baserrian sekula bizi gabeko teknikari batek esatea erabiltzen zituzten produktuak onak ez direla harritu ezezik iruditzen zitzaion haiek ez zekitela ezer ere. Nik aitari entzun izan nion kaletarra izanik baserrira joan eta gainera modu biologikoan hasi zenean atzera egiten ari zela esaten ziotela. Baina hartu zuen bide horrek arrazoia eman dio, gaur egun jendeak ekologikoa eskatzen baitu”.

Teknikariena ezezik taldeko nekazari, abeltzain zein okinek ere elkarri ematen diete laguntza. “Edozein zalantza izanez gero, generoa soberan badugu, landareak erosi behar baditugu... elkarrekin harremanetan egoten gara eta taldeko teknikariaren jakituriak ere asko laguntzen digu. Esaterako, gure

baserrietara etorri eta porruetan harriak ikusiz gero, proposamenak egiten dizkigu horri aurre egiteko”, esan digu Argiñek.

Urte asko dira Lore Biolurren sartu zela eta elkarteak bestelako jarduerak eta bizipenak eman dizkio Loreri: “Bilerak ezezik bidaiak ere egin genituen nekazaritza ekologikoan ziharduten beste ekoizle batzuk ezagutzeko eta beraien jardunak gogoan hartzeko. Esaterako, Akitanian izan ginen behin eta zortzi goldeko makina bat ikusi nuen han, sekulakoa”. Argiñe ere Brasilen egon zen horrelako mugimendu bat ezagutzen Biolurren kontaktuaren bidez: “Hango nekazariak dira garai batean lur jabeek handik bota zituztenak eta orain okupazioa baliatuz berriz hara bizi izatera itzuli dira eta lur horiek lantzen dihardute. Horrelako bidaiak gutxi izan dira baina oso aberatsa da beste ekoizle batzuen lan egiteko modua ezagutzea.

SENTSIBILIZAZIOA

Nekazaritza ekologikoaren aldeko sentsibilizazio lana egitea ere bada Biolurren lana. Ekoizpen eredu honek naturarengan eta kontsumitzaileen osasunarengan dituen onuren berri ematen dute, azoken bidez, material teknikoarekin, eskuorriekin, komunikabideetan edota sare sozialen bidez...

Elkartetik zabaldu bai, baina badira produktu biologikoak ondo ezagutzen dituztenak. Lorek kontatu digu Eibarko azokan gizon bat erosketak egitera joan zela eta bi postutara begira egon ondoren, barraskiloek jandako barazkiak hartu zituela besteek itxura hobea izan arren. Erosleak, ordea, argi esan zuen 12 ordu tailerlean pasatu ondoren ez zuela nahi pestizi-



Pello Rubioren bidez sartu zen Lore Osoro Biolurren; Argiñe Rubiok aitari hardu dio lekukoa.

Jesus Mugerza, Biolurreko laguntzailea

Orain dela 32 urte erosi zuten Jesus Mugerza eta Elene Ronsek Altzate-Etxetxo baserria, baina ez dira sekula baserriatik bizi izan, beti kalean egin dute lan. Hala ere, fruta arbolak eta ortua badauzkate. Bertatik ateratzen dutena etxerako izaten bada ere, zaintzeko moduari beti erreparatu izan diote eta sagarrek egiten dituzten zukuak ere Bio izan arren ez dira saltzeko.

Zukuak egiten hasi zirenean jarri ziren harremanetan Biolurrekin beren zalantzak argitzeko eta ortuari buruzko dudak ere argitu izan dituzt Biolurrera deituta. "Gehien bat zuku egiten hasi ginenean beraiekin harremanetan jarri ginen eta esan ziguten nola egin genezakeen. Izan ere, orduan, erakundeetatik ez zegoen laguntzarik, gaia nahiko ezezaguna zela zirudien eta Biolurren laguntzak segurantz eman zigun", esan digu Jesus Mugerzak.

Elkartetik jaso dute laguntza eta beraiek ere laguntzeko prest daude beste baserri batzuetan lanean jarduteko, zuhaitzak sartzen, esaterako. Bere ustez, "horrelako talde batean elkartzeak dudak edo arazoak izanez gero, elkarrekin partekatatu eta batzuk besteek laguntzeko aukera ematen du"

Biolurren aurrerantzean ere jarraitzeko asmoa dute. "Guretzat ez dago beste biderik, bestela txarrera joango gara".



Jesus Mugerza nekazaritza biologikoa egiten du Altzate-Etxetxon

daz betetako barazkirik jaterik. "Hark bazekien etxera joan, ondo garbitu eta lapikora botata barazki onak jango zituela".

Produktu ekologikoen eskaria handitzen ari dela uste du Argiñek. "Guk dendan saltzen dugu, baina ez dugu lursail handirik, beraz, eskaria ekoizpena baino handiagoa da gure kasuan eta gehiago izanez gero salduko genukeela uste dut".

Baserriko jarduna ezagutzeko Antxolara eskoletako umeak joaten ziren lehen. Lorek ogia egiteko prest izaten zuen dena eta ortua ikustera ere joaten ziren. "Baziren ortuko lurra zer zen ez zekitenak ere, baina gustura etortzen ziren". Pello Rubioere eskolara joaten zen nekazaritzari buruzko informazio eta azalpenak ematera.

Azalpenak azalpen, askotan ez da ekologiko kontzeptuaren esanahi zehatza zein den jakiten. Argiñeren ustez, agroekologikoa eta ekologikoa bereiztu behar dira: "ekologikoa da produktu kimikorik gabe ekoiztutakoa, baina gurea agroekologikoa izendatuko nuke; nekazal eremu txiki batean nekazaritza ekologikoa egitea produktu anitzekin, egun batean zerbait gaitzak hartuz gero beste produktu batzuk izateko". Beraien ekoizpena halakoa da. Argiñek dendan saltzen du eta Lorek etxean eta batzuetan beraiek eramaten dizkiete bezeroei etxera barazkiak. Beraien artean ere egiten dituzte elkartrukeak.

Erakundeekiko harremana ere badu Biolurrek. Baserrita-

rren eta erakundeen arteko bitartekari lana egiten dute eta agroekologiaren aldeko apustu politikoa.

Beste eragile eta erakunde batzuekin batera hainbat proiektutan ere hartzen dute parte, esaterako, gazteen instalazio proiektuetan laguntza eskainiz. "Guk proiektu bat aurkeztu genuen Gazteenek plangintzara 40 urtetik beherakoek nekazaritzan edo abeltzantzan jarduteko laguntzak jasotzeko. Belaunaldien arteko erreleboa zen gure kasua argi baikeneukan jarraitzea nahi genuela. Nire proiektua denda da eta orturik gabe dendak ez du zentzurik. Traktore oso zaharra geneukan eta inbertsioak beharrezkoak ziren. Hortarako erakundeen eta Biolurren laguntza ezinbestekoak izan dira guretzat", azaldu du Argiñek.

BASERRIKO LANA GAINBEHERA

"Baserrietan lanean hasi diren gazteak gutxi dira. Lehen baserrian jaiotakoek gero han jarraitzen zuten lanean. Gaur egun, baserrian bizi ez zen jendea hasi da nekazaritzan lanean, baina baserriko lanaren baldintzak gogorra dira", dio Argiñek. "Baserriko lanak ez dauka ordutegirik", argi esan du Lorek ere. "Jendea falta da. Baserri asko husten ari dira ez dagoelako belaunaldien arteko erreleborik. Nik bidea zabalik neukan aitarekin, bestela ez nintzateke gai izango hutsetik hasteko. Benetan miresten ditut zerotik hasi eta baserriko lanei eusten dieten gazteak", gaineratu du Argiñek.

Baserri askotan bertan bizi arren inguruko lurrak ez dituztela zaintzen esan digute Argiñek eta Lorek, besteak beste kanpoan lan egiten dutelako, baina zaindu ezean lurrak sasiak jaten dituela. "Gure semeari baserria asko gustatzen zaio, baina kanpoan egiten du lan, hala ere, baserria gustuko du eta asteburuetan lan pila bat egiten du", esan digu Lorek.

Argiñeren ustez, oraindik lan handia dago egiteko. "Gurea lehen sektorea da eta elikagaiak sortzen ditugu. Gizarterako lan oso garrantzitsua da gurea. Produktu ekologikoak garestiak direla uste dute askok eta ez pentsa nekazaritza ekologikoan dihardutenek sekulako soldata dutenik. Erronka bat da eta hori lortuko balitz erakargarriago izango litzateke jende gazte gehiago sartzeko. Enpresa handi bateko langileen soldatak agian ez, baina bai soldata duina goak lortzeko".

Gazteak nekazaritzara bideratzea zaila eta hortan diharduten nagusi askok, ordea, ez dute uzterik nahi. "Alabek beti galdetzen didate ea erretiroa noiz hartuko dudan, baina baserrian beti dago lana eta ahal dudan bitartean egingo dut", dio Lorek.



KANPAINA

Biolurren, ekoizleez gain, kontsumitzaileak eta laguntzaileak daude eta beren bidea egiteko ilusioa eta indarra dauzkaten arren, kanpaina egiten ari dira bidelagun gehiago lortzeko. "Gurea bezalako nekazaritzan eta abeltzaintzan sinesten dutenak, animatu nahi ditugu bazkide egitera", esan du Argiñek.

BIOLUR.EUS

Bazkide izan nahi dutenek elkarteko webgunera jo behar dute www.biolur.eus eta beren datuak utzi elkartekoak berekin kontaktuan jartzeko.

Etorkizuna eraikitzen jarraitu dezagun elkarrekin



Zorionak eta Urte Berri On!

Meka
Lanbide Eskola

ABENDUAK 24

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA

12:00etan

Elgoibarko kaleetan zehar:
*Maalako plaza,
San Frantzisko kalea,
Errosario kalea,
Kalegoen plaza eta
Santa Ana kalea.*

13:15ean

Olentzerok eta Mari Domingik
streaming bidezko mezua.
Elgoibarko Izarra
Euskaltzaleon Topagunea
yotubeko kanaletik.



elgoibarko herri eskola



Zorionak eta urte berri on

Elgoibarko Izarrakoek bertan behera laga dute abenduaren 24ko tonbola

Covid 19ak eragindako egoera epidemiologikoa dela eta iaz bezala, aurten ere, Elgoibarko Izarrak bertan behera uztea erabaki du abenduaren 24rako antolatzen duen tonbola.

Hainbat opari jasota dituztenez, Elgoibarko Izarrak jendearen prestutasuna eta eskuzabaltasuna eskertu ditu, eta osasun baldintzak hobetu ahala, tonbola berriz egiteko asmoa azaldu dute arduradunek.

Jasotako opariak hurrengo egingo duten tonbola horretarako gordeko dituzte, baina norbaitek emandakoa bueltan jaso nahi badu itzuli egingo diote.




Gipuzkoako pintxo, banderilla eta miniatuzazko sukaldaritza lehiaketan saritu dute Kultur Kafea

Aita Agirre Kultur Kafeak Gipuzkoako I. Pintxo, banderilla eta miniatuzazko sukaldaritza lehiaketan parte hartu du, eta ez hori bakarrik, saria ere eskuratu du: euskal produktuen tratamendu onenaren saria irabazi eman diote. *Rulo del Norte* izeneko pintxoak aurkeztu dute: azalore orria eta barruan fabada. Eguaztenez jokatuz zuten finala Donostian, eta pozik itzuli dira Elgoibarrera sariarekin eta tabernan bertan jarri dute ikusgai lehiaketan eman dieten kartela.



Oilar dema, zapatuan

Joan zen zapatuan, bestalde, rap kantariaren arteko oilar dema jokatuz zuten Kultur Kafean, eta Zaldibarko Jon Alzibar Uri izan zen irabazlea. 150 euroko saria jaso zuen. Hamar lagunek hartu zuten parte, eta bai ikusleak, bai partaideak eta baita antolatzaileak ere pozik geratu ziren ekitaldiarekin, eta esan dute martxo aldera berriz egingo dutela seguruena.



Familia albuma osatzeko ekintza abenduaren 26an

Abenduaren 26an, igandea, 11:00etan Kultur Etxeko sotoan familia ekintza izango da Atxutxia maikak antolatuta. Familia albuma osatuko dute bertaraten direnek. Horretarako, 2021ean ateratako argazki maiteenak eraman behar dituzte familia bakoitzak, aukeratu, inprimatu eta albuma egingo dute. Album horri, urte berriari begirako planak eta desioak gehituko dizkiete. Abenduaren 23a baino lehen eman behar da izena Elgoibarko Izarraren webgunean: elgoibarkoizarra.eus

Elgoibarrera etorri berrientzako euskara ikastaroak

Elgoibarko Udalak, Udal Euskaltegiarekin elkarlanean eta HABEren laguntzarekin, euskara ikasteko eta euskal kulturarekin harremanetan jartzeko aukera eman nahi die gure herrira bizitzera etorri berri direnei. Horretarako, AISA euskara ikastaro berezia antolatu dute. 60 orduko ikastaroak izango dira eta Udal Euskaltegian emango dituzte astelehen eta asteazkenetan 9:30etik 11:30era edo 14:00etatik 16:00etara. Urriaren 31n hasiko dira eskolak, eta maiatzaren 25ean amaitu. Ikastaroa 16 urtetik gorakoentzat izango da eta Udal Euskaltegian izena ematerakoan 25 euro ordaindu behar dituzte. Ikastaroan agurrak, zenbakiak, familia, eskola, garraioa, osasuna, kirola, merkatua... bezalako gaiak landuko dituzte.

Olentzero eta Mari Domingiren kalejirak eta Erregeen kabalgatak moldatu egin dituzte



A benduaren 24an, 12:00etan menditik herrira jaitsi eta Elgoibarko kaleetan barrena pasatuko dira Olentzero eta Mari Domingi: Maalatik abiatuta, San Frantzisko eta Errosario kaleak pasatu ostean Kalegoen plazara zeharkatuko dute, eta Santa Ana kalean amaituko da kalejira. Egun batzuk lehenago postontziak jarriko dituzte herriko hainbat txokotan gutunak botatzeko. Bestalde, 13:15ean mezu bat zabalduko dute streaming bidez Youtubeko Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea kanaletik. Mendaron arratsaldeko 17:00etan egingo dute Olentzerok eta Mari Domingik kalejira, baina kalejira osteko montxorra ez egitea eta gozokiak ez banatzea erabaki dute antolatzaileek. Umeek udaletxe aurreko zakura bota beharko dituzte eskutitzak.

Bestalde, urtarrilaren 5eko erregeen kabalgatek ere izango dute aldaketarik. Elgoibarren 18:00etan hasiko da eta ibilbidea ohikoa izango den arren erregeak ez dira hurrekin joango eta gutunak erregeei eman ordez Kalegoen plazan postontzia ipiniko dute hauek jasotzeko. Mendaron ere erregeek ibilaldia egingo dute, baina geldialdirik gabe baina pandemiaren eraginez azken unean bertan behera gera daitekeela ohartazi du Udalak. Antolatzaile guztiak jakinarazi dute, segurtasuna bermatzeko ez dela jende pilaketarik sortu behar eta horretarako aurrez jarritako neurriak bete behar direla.

Aitzol Beristainek irabazi du DanobatGroupeko euskarazko lehiaketa

Aitzol Beristainen 'Euskaraz izango gara' lema aukeratu du Danobatgroup kooperatiba taldeak Euskararen Nazioarteko Eguneko lehiaketan, lema kooperatiba taldearen erabakia eta konpromisoa modu argian jasotzen duelako. Urtetan dihardu Danobatgroupek egunerokotasuna euskaraz izan dadin lanean, eta aurten, 2021-2024 plan estrategikoa diseinatu eta euskara planeko erronkak eta helburuak ere onartu ditu.



Umirezko antzerkia domekan, Mendaron

BocaBeats Comediaren bi ikuskizun izango dira igandean, Mendaroko San Agustin kulturgunean; 17:00etan umeentzat eta 18:30ean adin guztietakoentzat. Ivan Perez eta Aitor Vidaurreta bikoteak mundu osoan ezagunak diren abesti eta filmak euskal ukituarekin nahastuko ditu, eta ikusleei barre eginaraziko diete bideoekin eta zuzeneko emanaldiekin.

Mendaroko Liburutegia itxita

Gabonetako oporrak direla-eta, Mendaroko Udal Liburutegia itxita egongo da 14 egunez. Abenduaren 21etik urtarrilaren 3ra ez dute zerbitzurik eskainiko. Urtarrilaren 6an, ostegunean liburutegia itxita egongo da.

Udal Bandaren domekako kontzertua bertan behera

Udal Musika Banda Gabonetako kontzertu berezia eskaintzekoa zen domekan, baina Covid-19aren ondorioz erabaki dute bertan behera lagatzea.

'Inun' hitzaldi musikatua, eguaztenean Kultur Etxeko sotoan

Mikel Inuntziagak (Zornotza, 1983) 2014an hasi zuen musikari ibilbidea, eta horren barruan, sormenean eta euskal kontzientzian oinarritutako hitzaldi musikatuak ere eskaintzen ditu. Eguaztenean Elgoibarrean izango da, 19:00etatik aurrera, Kultur Etxeko sotoan. Elgoibarko Izarrak, Udalak eta AEK eta Udal euskaltegiek antolatu dute saioa, eta printzipioz Tertuliak egitasmoko ikasleentzat izango da, baina gainerakoek ere badute sarrerak eskuratzeko aukera.

Gabonetako bertso saioko sarrerak salgai daude oraindik



Aurten ere Gabonetako bertso saioa antolatu du Elgoibarko Izarrak Udalaren laguntzarekin. Abenduaren 28an izango da, 22:30ean, Herriko Antzokian. Uxue Alberdi arituko da gai-jar-tzaile lanetan eta bere esanei erantzunez Aner Peritz *Euzkitze*, Oihana Arana, Maialen Lujanbio, Igor Elortza eta Nerea Ibartzabal bertsolariak.

Bertso saiorako sarrerak salgai daude Elgoibarko Izarraren Aita Agirreko bulegoan, 12 eurotan (Elgoibarko Izarrako bazkideek 10 euro). Abenduaren 23ra arte eskuratu ahal izango dira lehenago agortu ezean, eta sarrerarik balego egunean bertan Herriko Antzokiko leihatilan jarriko dituzte salgai.

Parrokiako jaiotza mekanikoa ikusgai izango da abenduaren 21etik urtarrilaren 9ra arte

Abenduaren 20an inauguratu eta abenduaren 21etik urtarrilaren 9ra bitartean ikusgai izango da Elgoijaiotza taldeko kideek ipinitako jaiotza mekanikoa. Urtero egiten dituzte berrikuntzak jaiotzan eta iazko etenaren ondoren, aurten bi irudi berri ipiniko dituzte. Asteleheneetik barikura, 17:30etik 20:30era, eta zapatu eta jaiegunetan 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era egongo da zabalik. Aforoa mugatua izango da, txanda bakoitzean 20 lagunekoa eta gehienez 15 minutu egon ahal izango da jendea barruan.



28 jaiotza aurkeztu dituzte jaiotza lehiaketara

San Bartolome Parrokiak aurten ere antolatu du jaiotzen lehiaketa eta 28 jaiotza aurkeztu dituzte. Izena eman duten 104 umeek, domekan, Aita Agirre kulturgunera eraman beharko dituzte jaiotzak 10:30erako. Ondoren, abenduaren 21etik 24ra eta 26tik 30era ikusgai ipiniko dituzte jaiotzak 18:30etik 20:30era, Aita Agirre kulturguneko erakusketa gelan. Urtarrilaren 7an jaso beharko dira jaiotzak bueltan, 17:00etatik 19:00etara.

Gabonetako kontzertuak abenduaren 23an

Abenduaren 23an, egunean, Elgoibarko Inazio Bezeziartua eta Mendaroko Ameikutz musika eskolek antolatuta, Gabonetako kontzertu bereziak izango dira. Elgoibarren, San Bartolome parrokiaren egingo dute kontzertua 20:00etan. Hari taldea, banda, korua eta dantzariak arituko dira Gabon giroko emanaldi arina eskainiz. Mendaron, berriz, aforoa mugatua izanik, bi saio egingo dituzte 18:30ean eta 19:30ean San Agustín kultur gunean. Gabonetako kantuak jo eta abestuko dituzte Ameikutzeko ikasleek.

'Mikelo' eta 'Udaberriko' saridun 'Egunean Behin' lehiaketan

Egunean Behin galdera-erantzun lehiaketan parte hartzeko taldea sortu zuen Elgoibarko Izarrak, eta denboraldi amaieran, taldera batutako 135 laguneren artean bi sari banatu dituzte. Taldeko lehena *Mikelo* erabiltzailea izan da, erantzunak azkar eta ondo emateko gaitasuna erakutsiz 2.813,44 puntu lortu ditu. Zozketa bidez banatu da bigarren saria eta *Udaberriko* erabiltzailearentzat izan da. Errigorak emandako otar bana eta Elgoibarko Izarrak antolatutako bertso-saiorako bina sarrera dira sariak. Elgoibarko Izarraren bulegoan jaso behar dituzte.

'Txomin' liburuaren aurkezpena Mendaroko gaztetxean

Jokin Urain idazle mendaroarrak *Txomin aurrera bolie!* liburu idatzi du. Txomin Iturberen biografia da lekuko zuzenek kontatutako testigantzak jaso dituen. Liburu gaur, abenduak 17, Mendaroko gaztetxean aurkeztuko du Jokin Urainek berak 19:00etan.

egunean
behin?



Elgoibarko Izarrak taldeko Egunean behin lehiaketako saridunak

- ★ Taldeko lehen sailkatua: **"Mikelo"**.
- ★ Parte hartzaile guztien artean egindako zozketako irabazlea: **"Udaberriko"**.

Biek Erigorak emandako otar bana eta Elgoibarko Izarrak antolatutako bertso-saiorako bina samera irabazi dituzte (Elgoibarko Izarrenen bulegoan jaso behar dira sariak)



Uzuri **ELGOIBAR - DEBA**
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar - 943 740 350 www.uzurioptika.com

"Bizitza liluragarria da,
betaurreko egokien bidez
begiratzea besterik ez dago"

Alejandro Dumas.

Gabon zoriontsuak!

DOÑA MERCEDES

Gabon hauetan operatu Doña Mercedes dendako saskiak eta Muruamendiaraz gozotegiko tartak, pastelak eta pastelak. Errege-opilen erreserba aurrez egin nahi izanez gero dendara jo behar da.

Errege-opilak Muruamendiaraz gozotegiko lokalean banatuko ditugu.

San Frantzisko, 21
20870 Elgoibar

Tel.: 943 742 852 / 943 732 239



2022

"Gau hartan ametsak zain zeuden, ilara batean. Ametsak ameslari bila, ametsuak izan nahian".

Eduardo Galeano, Helenaren ametsak

ehbildu



ME MAKINA
ERREMINTA
MUSEOA
www.museoa.eus

Nondik gatozen ezagutu,
nora goazen jakin ahal izateko.




ARAMBURU BITXIDENDA
San Frantzisko, 26
943 742 535

Erosi zure oparia
Aramburu bitxidendan
eta

**250€^{ko}
bi baleren
zozketan**
parte hartuko duzu




PSE-EE
PSOE

Urte berri
zorianru
eta oparoa!

Urte betti bakoitza da **HASIERA BERRI BAT.**
Gure berdintasun-, askatasun- eta senidetasun-printzipioetan
oinarritzen dugu, mundu hobea eraikitzeko.

JOSÉ IGNACIO ASENSIO
IDAZKARI NAGUSIA > PSE - EE GIPIUZKOA

PSE-EE GIPIUZKOA | socialistasgipuzcoanos.com f t



Leire
ileapaindegia
peluquería

**Urtarrilaren
3, 4 eta 5ean
ileapaindegia itxita
egongo da,
barkatu eragozpenak.**

943 256 105
Pedro Migel Urruzuno kalea, 10

Mila esker urte zail honetan
gugan konfidantza jarri duzuen guztioi.



'Txorti' eta 'Iriarte' omentzeko herri kirol jaialdia egingo dute bihar Ikastolako frontoian

Elgoibarko Udalak 2020 urtean zendu ziren Joseba Arrizabalaga Iriarte eta Jesus Mari Azpiazu Txorti omenduko ditu herri kirol jaialdi batekin, zapatu honetan, abenduaren 18an. Ikastolako frontoian izango da, 12:00etan. Udalak urte askotan Elgoibarren herri kirolaren alde egindako lana aitortu eta eskertu nahi die bi elgoibartarrei. Sigmako Probaleku Elkarteko kide ziren eta herri kirolaren alde, eta bereziki idi proben alde, lan asko egindakoak biak. Doan izango da sarrera. Egurraldi ona iragarrita egon arren, jaialdia Ikastolako frontoian egitea erabaki du Udalak, Covid-19aren pandemiaren intzidentzia tasak azken hilabete honetan egin duen gorakada kontutan izanik, prebentzio eta segurtasun neurri oro betetzeko eskaintzen duen bermeagatik. Jaialdian kirolariak aizkoran, harria jasotzen, iparraldeko jokoetan eta trontzan arituko dira. Aizkoran Euskadiko txapelketa, Hodei Ezpeleta, eta azpitxapelketa, Xabier Zaldua arituko dira, Goizeder Beltzarekin eta Ernesto Ezpeleta "Bihurri"-rekin batera. Harriarekin, txingak eramaten, iparraldeko jokoetan eta trontzan Ousmane Dramé, Nerea Egurrola, Lucia Orbe eta Carlos Aretxabaleta.




Urrezko Aizkolari Kopako finalerako sailkatu da Ezpeleta



Hodei Ezpeletak sasoi betean jarraitzen du. Euskal Herriko federazioaren aizkolari txapelketa irabazi ostean, beste final baterako txartela eskuratu du orain: Gizonezkoen Urrezko Aizkolari Kopako finalean lehiatuko da, abenduaren 31n, Asteasun. Ezpeletak abenduaren 12an Aiako probalekuan jokatu zuten finalerdian lortu zuen finalerako sailkatzea. Sei aizkolari lehiatu ziren han, eta sei kanaerdiko moztu behar izan zituen bakoitzak. Lehen hiru bizkorrenak sailkatu ziren Asteasuko finalerako: Basozabal (10:54), Ezpeleta (11:27) eta Zaldua (12:46).

Kirol argazkien lehiaketak baditu irabazleak

Udal Kirol Patronatuak eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailak antolatzen duen kirol argazki erakusketak baditu irabazleak. 18 lagunek hartu dute parte, eta guztira, 68 argazki aurkeztu dituzte. Argazki guztiak ikusgai daude Kultur Etxeko erakusketan, bihar arte (18:30etik 20:30era). Miguel Caveró Carazoren 'En las alturas' argazkiak lortu du lehen saria (ondoko argazkian) eta Aritz Gordo Perezen 'Naturaren sorpresa' argazkiak bigarrena. Herritarrentzako saria Jose Ramon Cabrera Cidek jaso du, 'Hipica' argazkiarekin. Azkenik, Gazteentzako saria Mikel Taboada Blancok eskuratu du 'BMX bowl' argazkiarekin.



Xake Txapelketa herrikoia, bertan behera

Zubi Ondo Xake Taldeak Gabonetako Xake Txapelketa Herrikoia antolatua zuen domekarako, nagusientzako eta Eskola Kirolean diharduten umeentzako, baina bertan behera lagatzea erabaki dute pandemiaren bilakaera dela-eta. Aurrerago antolatuko dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Maite Maiorak jaso du Gipuzkoa Kirola Saria



Aurten nabarmendu diren Gipuzkoako kirolariak saritu zituzten joan den abenduaren 10ean, Donostiako Tabakalera egin zuten Gipuzkoako Kirol Galan. Sari nagusiak, Gipuzkoa Kirola Saria, bi kirolariek eskuratu dituzte. Maite Maiora Mendaroko mendi-lasterkariak emakumezkoetan, eta Ander Elosegik, lau Olinpiar Jokotan parte hartu duen piraguista irundarrak, gizonezkoetan. Maiora Skyrunning Munduko



Txapelduna da eta Hiru Handiak mendi lasterketako irabazlea, errekorra barne. Elosegik, berriz finalista izan zen aurten jokatu dituzten Tokioko Olinpiar Jokotan. Gipuzkoako Foru Aldundiak kirol merezimenduengatik Gipuzkoan gehien nabarmendu den pertsona saritzen du sari honekin. Epaimahai tekniko batek erabakitzen du zein kirolariri edo kirol talderi eman Gipuzkoa Kirolak saria. Gipuzkoarren Saria ere banatu zuten. Kirolariek botoa emateko aukera izan dute herritarrek eta bi judokak jaso dute boto gehien, Unai Saralegi tolosarrak eta Unai Regillaga amezketarrak

Jokin Muñozek bi minutuan ondu du bere marka pertsonala Valentziako maratoian

Maratoilarien artean kuttunenetarikoa da Valentziako maratoia, bestek beste, antxitxikariek bertan lortzen dituzten denborak aintzat hartuta munduko hirugarren maratoirik azkarrena delako. 128 herrialdetako 15.000 korrikalarik hartu zuten parte aurten goan, eta horien artean zen Jokin Muñoz Olazabal mendararra. Maratoia bera bukatzeko gauza izateaz aparte, maratoi batean aurretik zuen marka pertsonala bi minututan hobetzea lortu zuen, bi ordu 26 minutu eta 24 segundoko denbora eginda. Horixe 42 kilometro eta 195 metroko ibilbidea osatzeko behar izan zuen denbora. 148. postuan sailkatu zen. Postua baino gehiago bere marka pertsonala ontzea zuen helburu Muñozek, eta, helburua guztiz beteta itzuli da Valentzia aldetik.



Karakateko erronka egingo du Juanan Martinek bigarrenkoz

luz bere buruari jarri zion erronka bera errepikatuko du bihar, hilak 18, Juanan Martin kirolariak: Karakatera bost joan etorri sei orduren azpitik egiten saiatuko da. Luz, zortzi minutugatik ez zuen lortu. 7:00etan egingo du lehen igoera, eta joan etorri bakoitza ordu bat eta hamabi minutuan egitea aurreikusitako du.

2021eko Kirol Federatuaren Urteko Sariak banatuko dituzte martitzenean

Kirol Federatuaren Urteko Sariak banatzeko ekitaldia egingo dute abenduaren 21ean, martitzena, Musika Eskolako auditoriumean. Pandemia dela-eta, eta ekitaldia laburtze aldera, aurten ez dute kirolariek antolatatu ohi duten mahaingururik egingo. Edonola ere, sarrera irekiko ekitaldia izango dela zehaztu dute Udako Kirol Patronatutik. 19:30ean hasiko da ekitaldia.

Igor Torres gailendu da Amurrioko krosean, Master mailan

Euskadiko eta Arabako Txapelketak hartu zuten Amurrioko Krosaren III. edizioak, joan den abenduaren 12an. Ehunka kirolariek eta ikuslek hartu zuten Refor kirol-gunea Oinkariak Atletismo taldeak antolaturiko kirol probaz gozatzeko, bi urteko etenaldiaren ostean. Burundiko Thierry Ndikumwenayo (31:47) eta Jone Zabaleta (31:06) donostiarra gailendu ziren maila nagusian, eta adin tarteetako kategoriatan, lehen postua eskuratu zuen Igor Torres elgoibartarrak, Master mailan, hain zuzen ere.

GOKI



erreformak

Gabon zoriontsuak!

Olaso pol, 15 - 68 pab
Tel. 943 74 42 23
ELGOIBAR

Irizar, 1 beheha
Tel. 943 76 53 42
BERGARA

Errabal, 19 beheha
Tel. 943 12 57 41
SORALUZE

www.gokierreformak.com

ILSko langileen partetik...

*Zorionak eta
urte berri on!*



Eguberri zoriontsuak eta urte berri on!

**Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz ere, argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna.**

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Aita Agirre, 3, 3. solairua – 20870 ELGOIBAR

943 742 731

udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus



betiON
GARA



betiON, Euskadiko Telelaguntza Zerbitzu
Publikoaren medaila gorriak **segurtasuna eta
lasaitasuna** eskaintzen digu eguneko 24 orduetan.

Argibide gehiago hemen:

www.euskadi.eus/betion

900 851 600

012 Zuzenean

Euskadi, anzolana



Xabier Lapitz: Kazetaria

Itziar Aizpuru: Aktorea

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, ospitalean ere bai. Igeltsero, pintore, edo fresatzaile lanetarako ere prest nago. Paperak legez ditut. ☎ 634 692 962

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 688 739 536

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 641 322 939

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan. ☎ 631 425 686

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 740 031 348

Adinekoak zaintzeko prest nago, gauetz. ☎ 663 725 549

Adinekoak zaintzeko prest nago, gauetz. ☎ 618 439 041

Orduka egingo nuke lan. Adinekoak zaintzeko beharrezkoak diren titulua eta esperientzia ditut. Garbiketa lanetarako ere prest egongo nintzateke. ☎ 631 229 408

Asteburuetan lan egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen. Etxeko langile moduan edo orduka egingo nuke lan. ☎ 641 322 473

21 urteko gaztea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, tabernak edo lokalak garbitzeko, baserrian lan egiteko... Autoa daukat. ☎ 681 374 335

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Asteburuetan eta oporretan ere bai. ☎ 643 584 198

Eskaerak

Bi mekanikari behar dira, doikuntza eta muntaia lanetarako. Curriculumak Zarauzko 309 posta-kutxatilara bidali behar dira.

Goizez etxea garbitzeko pertsona bat behar dugu. ☎ 699 143 767

Zerbitzari euskalduna behar da. ☎ 652 746 246

Adinekoak zaintzeko pertsona bat behar dugu. Adinekoak zaintzeko titulazioa edukitzea ezinbestekoa da. ☎ 675 706 139

Lanbide Heziketako Administrazio eta Finantza ikasketak egiten ari den ikasle bati kontabilitateko eskola partikularrak emateko pertsona bat behar dugu. ☎ 646 113 085



Adineko bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. Baserrian bizi gara, beraz, autoa edukitzea ezinbestekoa da. Adinekoak zaintzeko titulazioa eskatzen dugu. ☎ 615 721 771

ETXEBIZITZAK.....

Estudioa alokatzen dut Elgoibarren, altzariekin. ☎ 669 665 252

BESTELAKOAK.....


90 zm-ko bi ohe salgai. Egoera onean. ☎ 943 531 648 / 669 916 148

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Euzkoaldea (Euzko) Administrazioaren Kontak</p>  <p>ROSA Ma PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitatean eraiki zuten tximinia 30 urtez erabili gabe eta mantentze-lanik egin gabe dago. Etxe jabe batek eskatu du aztertzeko, garbitzeko eta baldintzarik onenetan mantentzeko. Jakin nahi nuke ea tximiniaren mantenua egitera behartuta gauden, erabiltzen ez bada ere.</p> <p>Komunitate bateko tximiniaren zaintza eta mantenua bizigarritasun baldintzak betetzeari dagozkio. Beraz, komunitatea derrigortuta dago eraikina, honen zerbitzuak eta guztien instalazioak egoera onean mantentzeko lanak eta obrak egitera. Honen baitan leudeke segurtasuna, bizigarritasuna eta irisgarritasuna asebetetzeko lan orokorrak. Baita ere baldintza apaingarriak edo administrazioak mantenuari buruz ezarritako legezko baldintzak. Tximinia, erabili ez arren, kendu ez bada, komunitateak mantendu egin behar du. Hori edozein etxejabe eskatu dezake. Beraz, komunitateak kontserbazio lanak egin beharko ditu etxejaberen batek eskatuz gero, legez kentzen ez badute behintzat.</p> <p>Aholkua: Komunitateak tximinia zerbitzua kendu nahi izango balu, gaia, etxejabeen batzarrean aztertu beharko litzateke eta legezko gehiengoaren bidez adostu.</p> <p>ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--



ZORIONAK

Argazkiak urtarrilaren 3rako ekarri behar dira
BARRENEko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus
e-postara edo  688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Nora!** Muxu handi bat Eleneren eta etzekoen partez.




Zorionak, **Ange,** etzekoen eta, bereziki, Ametsen partez. Patxo haundi-haundi bat.



Zorionak, **June!** Dagoeneko, 4 urte! Primeran ospatu genuen zure eguna! Muxu potolo bat!



Zorionak, **Nahia,** zure 9. urtebetetzean! Muxu handi bat etzekoen, eta bereziki, Hodeiren partez.



Zorionak, **Uhai** eta **Izei,** abenduaren 13an 3 urte bete zenituztelako. Izebaren partez.



Zorionak, **Marko,** asteazkenean 5 urte bete zenituelako, eta zorionak, **Paul,** hilaren 10ean urte bat bete zenuelako. Etxekoen partez. Asko maite zaituztegu.



Zorionak, urtebetetze eguna gerturatu da azkenean, **Unai!** Astear-tean zuk merezi bezala ospatuko dugu. Zorionak, eta 5 belarri tirakada!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



HEMEN GURE ZERBITZUAK

- *Orraztu, modu kolore eman...
- *Ilerako azterketa sakona
- *Solarium-a
- *Mikropigmentazio eta Mikroblading-a
- *Juhheim/emaitzak
- *Kima Makilajeak

 Idama_ileapaindegia
 Idama_ileapaindegia
Tif.943744026

Antonia Arriola-6
"Barrena Santa Ana kalea" ELGOIBAR

Gabon zoriontsuak!



Patxi Otaegi
Arreta baserria, Beizama
Beizama gazte

Erosi geurea, erosi Gipuzkoa!

Etxekoak

Gure baratzak, baserriak eta basoak.
Bertakoak, kalitatezkoak, gureak.
Gabon hauetan erosi ditzagun gure ekoizleen produktuak.



ESARRI AUTOAK ZERBITZUA
MARKA GUZTIAK

943 741 480

Aitor: 606 975 730
Anton: 680 356 573
Faxa: 943 031 576




Olaso, 17 - Elgoibar

17 BARIKUA

16:30 Odol ateratzea, Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408.

19:00 Zine foruma: 'Dancing at the blue iguana'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan.

19:00 Aurkezpena: Jokin Urain mendarorarrak 'Txomin, aurrera bolie' liburua aurkeztuko du. Mendaroko gaztetxean.

18 ZAPATUA

9:30 Gorputza eta sexualitateari buruzko jardunaldia. Lilan.

12:00 Herri Kirolen jaialdia, Joseba Arrizabalaga 'Iriarte' eta Jesus Mari Azpiazu 'Txorti'-ren omenez. Ikastolako frontoian.

19:00 Kontzertua: Alarma morea. Kultur Kafean.

19 DOMEKA

10:00 Dultzaineroen kalejira.

10:30 Jaiotza lehiaketa. Aita Agirre kultureturgunera eraman behar dira jaiotzak.

17:00 Haurrentzako antzerkia. Boca-beats taldeak eskainiko du, Mendaroko San Agustinen.

18:30 Bocabeats antzezlan, nagusientzako. Mendaroko San Agustin kultureturgunear.

20 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabetzako tailerra: 'Jazarpenera ezkutatzeko duten piro-piroak'. Loredi Salgeik gidatuta, Lilan.

21 MARTITZENA

19:30 Kirol Federatuaren urteko sariak. Musika Eskolako auditoriumean.

22 EGUAZTENA

19:00 Hitzaldi musikatua: 'Inun. Sorrena eta euskal kontzientzia'. Mikel Inuntziagak eskainiko du. Kultur Etxeko sotoan.

19:00 Mahaingurua: 'Bakearen sukaldia'. Arnaldo Otegi, Jesus Egiguren eta Pello Rubiorenkin. IMHko areto nagusian.

23 EGUENA

18:30 eta 19:30 Mendaroko Ameikutz musika eskolako kontzertuak. San Agustin kultur gunean.

20:00 Musika Eskolako Gabonetako kontzertua, San Bartolome parrokan.

24 BARIKUA

12:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira. Segidan, haurren gutunak jasoko dituzte, Kalegoen plazan. Antolatzailerak: Atxutxiamaika.

13:15 Olentzero eta Mari Domingiren mezua, streaming bidez, Youtubeko Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea kanalean.

17:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira Mendaron.

19:00 Kantaldia: Herriko musikariek. Kalegoen plazan. Sarek antolatuta.

27 ASTELEHENA

21:00 Idi-demak: Idi gazteen Gabonetako Saria. Sigmako probalekuan.

28 MARTITZENA

20:30 Gabonetako Bertso Jaialdia. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Herriko Antzokian. Aner Peritz Euzkitze, Oihana Arana, Maialen Lujanbio, Igor Elortza eta Nerea Ibartzabal bertsolariekin. Gai-jairtzailea, Uxue Alberdi.

29 EGUAZTENA

19:00 Elgoibarko Isiltasun Eskolaren hausnarketa saioa.

31 BARIKUA

13:00 Giza katea. Sarek antolatuta, Kalegoen plazatik Maialara.

5 EGUAZTENA

18:00 Elgoibarren, Errege Magoen desfilea.

Zinea (Herriko Antzokian)

'La casa Gucci'

17 barikua: 21:30

18 zapatua:

19:00 / 22:15

19 domeka: 19:00

20 astelehena: 21:00

'Ron da error'

19 domeka: 16:30

'Una familia feliz'

26 domeka: 16:30

'Cuidado con lo que deseas'

26 domeka: 19:00

27 astelehena: 21:00

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

17 BARIKUA	18 ZAPATUA	19 DOMEKA	20 ASTELEHENA	21 MARTITZENA	22 EGUAZTENA	23 EGUENA	24 BARIKUA	25 ZAPATUA	26 DOMEKA	27 ASTELEHENA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti *Garitaonandia	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Yudego	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia
28 MARTITZENA	29 EGUAZTENA	30 EGUENA	31 BARIKUA	1 ZAPATUA	2 DOMEKA	3 ASTELEHENA	4 MARTITZENA	5 EGUAZTENA	6 EGUENA	7 BARIKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez *Oruesagasti	Egunez *Oruesagasti	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Yudego	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza
(Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1
(Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384

Abenduan gaez: 22:00-09:00

Arantzazu Izpizua. Ibarkurutze, 7 (Eibar) - 943 201 912

Urtarriletik aurrera, urte guztian, gaez: 22:00-09:00

Mendinueta Berastegui, Esther. Urkizu pasealekua, 6 (Eibar)
943 820 106

ELGOIBAR 675. URTERENA

ABENDUAK 20, ASTELEHENA

8:00 Udal Txistulari Bandaren diana

9:00 Herriko dultzaineroekin diana

12:00 Txalaparta. Kalegoen plazan, Maalako parkean eta Aita Agirre plazan. Kanpai jotzea San Bartolome elizan eta herriko ermitetan.

19:00 'Yulen 100 urte' marrazki liburuaren aurkezpena. Aita Agirreko areto nagusian.

ETA, DEBABARRENEAN ZER?

GO!AZEN 8.0

ERMUAN, URTARRILAREN 3AN, ERMUA ANTZOKIAN,
16:00ETAN ETA 18:00ETAN

"Lagunak" udako kanta aurkeztu ondoren, Goazen telesailiko protagonistek kontzertu bira berri bat egingo dute aurten. Pertsonaia ezagunak eta berriak elkarrekin arituko dira, denboraldi ezberdinetako kantak eskainiz. Sarrerak salgai daude Kutxabank plataformaren bitartez.

Azaroan hildakoak

- **Jesus Aizpurua Epelde**
89 urte, azaroak 4
- **Maria Lourdes Alberdi Salaberria**
91 urte, azaroak 7
- **Jose Luis Akizu Ormazabal**
89 urte, azaroak 10
- **Pilar Iglesias Vazquez**
92 urte, azaroak 12
- **Ramos Campo Tricio**
90 urte, azaroak 12
- **Rosario Beloki Aizpitarte**
91 urte, azaroak 14
- **Ignacio Arrillaga Arrillaga**
88 urte, azaroak 20
- **Soledad Ugarte Muñoz**
88 urte, azaroak 20
- **Gotzon Zubiaurre Zabala**
41 urte, azaroak 22
- **Angel Gurrutxaga Askasibar**
87 urte, azaroak 25
- **Josefa Muguruza Ugarteburu**
92 urte, azaroak 27



Gabonak iristear dauden honetan garai bateko Gabonetako argazkiei begira hasi eta 1965 urte inguruko honako hau aurkitu du irakurle batek eta gurera ekarri du garai haietan egiten zutena kontatuz. Natibitate egunean, kaleetan barrena dantza egiteko, neskaz osatutako taldea prestatzen zuten, besteak beste Itziar Garcia Isastik eta Mari Sol Gurrutxaga Kondek. Mateok gidatutako Sigmako Fenwickean prestatzen zuten jaiotza bizidunaren karroza. Amabirjinaren papererako neska ilehoria aukeratzen zuten eta neska beltzarana izaten zen San Jose. Gainontzekoak zortziko bi taldetan banatu eta txistularien laguntzaz aritzen ziren txalo dantza, arku dantza, ingurutxo eta batez ere *Artzai buru txuri bi* dantzatzen taldeko denek kantatzen zuten bitartean.

Lehen ilaran, ezkerretik hasita: Itziar Saez, Lurdes Odria, Maria Angeles Gabilondo, eta Mila Sorazu. **Bigarren ilaran:** Garbiñe Mugika, Maria Luisa Urain, Maria Asun Gabilondo, Amaia Rivero, eta Miren Juaristi. **Hirugarren ilaran:** Rosa San Martin, Pake Garzia, Mertxe Artetxe, M. Carmen Agirregomezkorta, Amaia Mugika Larreategi, Amaia Mugika Elorza eta Amaia Urkidi (†). **Umeen artean:** Ana Artetxe, Kristina Garcia, Koro Isasti, Marga Kastrillejo, Lorea Iriondo eta Jose Ignacio Urkidi. **Karrozan:** Mari Kontxi Zuazubizkar (San Jose) eta Kontxi Juaristi (Amabirjina).



Juan Agustin Esnaola Egaña


2021eko abenduaren 11n hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



GORBEA

Jatetxea

943 575 278



GABONETAKO TALDE MENUAK

Urdaiazpiko eta onddoen kroketak
Burrata-gazta entsalada
Txipiak plantxan
Masail iberikoak
Gazta-tarta
Ardoa eta kafea

35 €+ B.E.Z.-a

Urdaiazpiko eta onddoen kroketak
Entsalada epela
Bakailaoa plantxan
Mandarina-sorbetea
Txuleta
Gazta-tarta
Ardoa eta kafea

40€ + B.E.Z.-a

ZURE NELRRIRAKO MENUA PRESTATZEN DUGU
ZATOZ ETA ESKATU AURREKONTUA!

ZOZKETA



@gorbea_restaurant

BI LAGUNENTZAKO DASTATZE-MENUAREN ZOZKETA

Abenduaren 22an bi lagunentzako dastatze-menua zozkatuko dugu.

Parte hartu nahi al duzu? Sartu @gorbea_restaurant instagram helbidean, bertan topatuko dituzu oinarriak.

Une zailenetan guztiaz arduratzen gara



Xixilion, z/g. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)



Hileta-zerbitzuak:

- 24 orduko hileta-zerbitzu iraunkorra.
- Agur pertsonalizatuak.
- Gestoria: azken borondateak, oinordetzak, pentsioak, aseguruak...
- Espainiako Estatuko eta nazioarteko lekualdaketak.

T. 943 747 386

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Basauri · Galdakao · Barakaldo · Portugalete · Santurtzi · Leioa ·
Getxo · Sestao · Karrantza · Zalla · Muskiz · Balmaseda